

GUaiXE.eUS



**Olatzagutia-
Urbasa mendi
lasterketa bihar**



Kirolak >> 13

**Uharte Arakilen eta Olatzagutian
festak ospatuko dira asteburuan.
Asteartean jendetza espero da
Aralarko santutegian**



Sakanerria >> 6



Emakumeen Mundu Martxa gurean

>> 5

Asteartean, 11:00etan, Altsasuko Baratzeko bide plazan geldialdia egingen du Emakumeen Mundu Martxak eta ekitaldia izanen da.



**Sakana
bizikletan
zeharkatzera**

>> 11

**Martinez
absolbitu
egin dute**

>> 8

**AEK-n hasi
dira euskara
ikasten**

>> 3

**Mintzakide, mingaina
euskaraz askatzeko.
Izen ematea zabalik da**

>> 9

**Txakurren pozoitzeak
salatuko ditu bihar
Huellas de Altsasuk**

>> 7

**Sustraiak,
Dantzarima
eszenatokira**

>> 15



Jasotako 111 argazkiren artean www.guaxe.eus-eko bisitariak aukeratuakoa.

**Udako argazki
lehiaketak
baditu sarituak**

Epaileek Mar González Ruiz de Larramendi eman diote Turkiarako bidaia. Eta zuek Bea Vegas Zelaiari Iruñeko Way Out esperientzia



Mar Gonzalezek Miarritzen ateratako argazkiari eman diote saria epaileek.

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Kemen
ZORIONAK Kemen!
8 muxu potolo zureztat
familia guztiaren par-
tez. Ongi pasa eguna!!!



Hodei
Segi hain jator eta alai
eta behar bezala ospa-
tu. Prestatu belarriak!!

**Bazkideek
deskontua**

Bakarra:

4,00€

Bazkideek:

3,50€

irailak-lastailak

25-1

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Charlie & The Colours. Irailaren 25ean, ostiralean, 22:30ean Altsasuko Haritza tabernan.

Kalakan. Irailaren 26an, larunbatean, 17:00etan eta 20:00etan Arbizuko ekokanpineko Amari yogan.

Etxarri Aranazko abesbatza eta Etorkezuna dantza taldea. Irailaren 26an, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan.

Dj Bull. Irailaren 26an, larunbatean, 24:00etan Olatzagutiko Barandi tabernan.

Dantza

Sustraiak. Irailaren 26an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.
Dantzarima dantza taldea.

Antzerkia

Beltx inberexagube. Irailaren 26an, larunbatean, 11:00etan Etxarri Aranazko kanpineko sarreratik.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Goldaratz-Altsasu. Irailaren 26an, larunbatean, 9:30ean Altsasuko kultur gune paretik. 80 km. Zikloturista taldea.

XXII. Sakanako Bizikleta Eguna. Irailaren 27an, igandean, 9:00etan Ziorditik Irurtzunerara, Lakuntzan geldialdia. 41 km. Mank-eko Kirol Zerbitzua.

Ibilbideak

Aarrantzaileen bidea (Irurtzun-Latasas-Irurtzun). Irailaren 27an, igandean, 10:00etan Irurtzungo plazatik. **Familia Mintzakide.**

Hitzaldiak

Jokabidearen trastornoa duten dementsziadun pertsonen erabilera. Irailaren 29an, asteartean, 18:00etan Iortia kultur gunean. **Hizlaria: Jose Joaquin Roldan,** mediku psikiatra.



Goldaratzera Zikloturismo taldearekin.

Bestelakoak

Gaztetxeroen arteko desafioak, futbol partida. Irailaren 26an, larunbatean, 19:30ean Altsasuko Dantzaleku futbol zelaian. **AGA.**

Deialdiak

Sortuko dugu gaztetxoko bat Etxarrin? Irailaren 25ean, ostiralean, 19:00etan Etxarriko ikastolako patioan.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 25ean ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.**

Gaur nire txakurra izan da, eta bihar? Irailaren 26an, larunbatean, 18:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazan.

Herri izarrek ez direla itzaltzen... Irailaren 27an, igandean, 17:30ean Altsasuko San Pedro ermitaren parean. **Ezker abertzalea.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 27an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

VI. Nazioarteko Emakumeen Mundu Martxa. Irailaren 29an, asteartean, 11:00etan Altsasuko Baratzeko bide plazan. **Mugimendu Feminista.**

objektibo tik



Zuloa plazan:

Altsasuko Foru plaza hankaz gora jarri dute aste honetan, zorua konpontzeko. Zorutik kendutako harlauzak alde batean pilatu dituzte. Garai bateko frontoiko zorua dira, eta garai batean frontisa zegoen tokian pilatu dituzte. Zorua berritutarekin, eta frontisaren faltan, bestelako jolasak eta solasak hartuko ditu plaza eraberrituak.



Zubian ez aurrera ez atzera:

Horrela gelditu ziren kamioia eta autoa. Nola askatu ziren? Matxurarik izan zen? Zeinen aseguruua arduratu zen balizko matxurez?... Horiek eta beste galdera batzuk sortu zaizkigu pasa den ostiralean Etxarri Aranazko zubian gertatutako istripuaren ondoren. Baina nagusia: noiz emango diote zabalera gehiago zubiari? Etxarriko udalak hainbatetan egin du eskaera.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net

Ostiralero

SAIOA

9:30etan

Gaurko gaiak:

- KM Bertikala
- Altsasuko txakurren pozoitzea
- Herriak Libre
- Euskaltegi berria

Esataria: Alfredo

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

107.3 FM

beleixe

www.guaixe.eus-en ON LINE

ETXARRIKO GAZTETXOENDAKO DEIA:
Sortuko dugu gaztetxoko bat Etxarrin?
Deialdi hori egin diete gaurko Etxarriko 12
eta 16 urte bitarteko gaztetxoei.

19:00etan ikastolako patioan izanen da bi-
lera. Ideiak eta ekarpenak ongi etorriak
izanen direla aurreratu dute.

ezkaatza >>

SAKANA

Euskalduntzeko, euskaltegia

Eraikina mustu ondoren helduen euskalduntze eta alfabetatze klaseak atzo hasi ziren

Telefono deiak, whatsapp eta telegram mezuak eta bisitak. Halakoak jasotzen aritu dira etengabe azken egunetan AEKren Itsasi euskaltegian. Helduen euskalduntzeko matrikulazio kanpaina despeditzear eta egutegiak eta taldeak ixten aritu dira AEK-ko kideak (ikus ondoko taula).

Langintza horrekin batera, Itsasi euskaltegi handitu eta berriua egoki jartzeko lanak izan dituzte irail hasieratik. Guztia behar bezala txukunduta. Ostiralean mustu zuten egoitza berria eta bisitarien oniritzia jaso zuten inbertsioak. Sakanako AEKko Patxi Floresek eman zien ongi etorria ekitaldira hurbildu ziren guztiei. Ibarrean helduen euskalduntze-alfabetatzeak egindako ibilbidearen errepaso arina egin zuten.

Nafarroako AEK-ko arduradun Xabier Gartzia adierazi zuenez, Sakanari zerbitzu emateko eta sakandarrak euskalduntzeko da Itsasi euskaltegia. Gartzia gaineratu zuenez, "AEKren metodoarekin nahi duen guztiak ikasi eta hitz egin dezake euskaraz". Ikaste prozesu horretan AEK laguntzailea dela, "protagonistak ikasleak bai-



Elkartutako jendea dantzariari begira, mustutze ekitaldiaren hasieran. Zinta moztu eta gero euskaltegi berriua eta handitua bertatik bertara ezagutu zuten.

tira". Euskararen tokia berreskuratzeke deia egin zuten, Euskal Herriaren euskaraz bizi ahal izateko. Horretarako, euskararen aldeko hizkuntza politikak aldarrikatu zituen Gartzia. Lege babesa, plangintzak, baliabideak eta diskurtsoa beharrezkoak ziren. Halakoak izan ziren "AEK konplize izanenda", ziurtatu zuen Gartzia.

Jende ugari

Leire Bujanda Morok dantzatutako aurrekuaren eta Olga Martinez Rodriguez ikasleak zinta moztu ondoren, Itsasi euskaltegi berriua eta handitua ezagutzeko aukera izan zen. Ehun bat pertsona izan ziren ekitaldian. Haien artean zeu-

den, besteak beste, AEKren zuzendaritzako kide guztiak, Euskal Herriko buru Mikel Arregi, Kontseiluko Paul Bilbao, Hizkuntza Eskubideen Behatokiko Garbiñe Petriati, Berria egunkariako Pello Urzelai, Sakanako bertso eskolako Josema Leitza, Bierrik fundazioko Iñaki Mundiñano, EHEko kideak, Iñigo Aritza eta Sagrado Corazoneko ordezkariak, Asun Fernandez de Garaialde parlamentaria, Irañeta, Arbizu, Etxarri Aranatz eta Altsasuko alkateak eta zinegotziak. Baita ikasle eta irakasle ohi ugari ere.

Altsasuko bertso eskolakoak euskaltegian elkartzen dira eta mustutzean ezin ziren falta. Haie-



Sakanako AEKren eskaintza*			
Herria	Maila	Orduetgia	Egunak
Iruztun	A2	9:30etik 11:30era	Al-Az
	A2	19:00etik 21:30era	Al, Az
	B2	15:30etik 17:00etara	Al, Ar, Og, Ol
Etxarri A.	B1	15:00etik 16:30era	Al, Ar, Og, Ol
Altsasu	Hastapena	9:30etik 11:30era	Al-Og
	Hastapena	19:00etik 21:00etara	Al-Og
	A1+	9:30etik 11:30era	Al-Og
	A1+	16:00etik 18:00etara	Al-Og
	A2+	9:30etik 11:30era	Al-Og
	A2+	19:00etik 21:00etara	Al-Og
	B2	8:30etik 10:30era	Al-Og
	B2	9:30etik 11:00etara	Al-Og
	B2	17:00etik 19:00etara	Al-Og
	EGA	9:30etik 12:00etara	Al, Az, Og
	EGA	18:30etik 21:00etara	Al, Az, Og
EGA	9:30etik 13:30era	Larunbata	

* Auto-ikaskuntza eta Mintzakide programa ere bai.

tako bi aritu ziren bertsoan. Edo Zubeldia akordeoian lagun zuela Maider Ansak Pirritx eta Porrotxen *Egiozu euskaraz* kanta abes-

tu zuten. AEK-ko ikasle eta irakasle oraingo eta garai bateko argazkiez osatutako proiektzioa ere ikusgai izan zen.

Cederna-Garalurreko zuzendaritza berriuta

Maite Iturre, Baztango EH Bilduko zinegotzia, da elkartearen presidente berria. Hala erabaki zuen zuzendaritza batzordeak Lekunberri aurreko ostegunetan. Iturrek 32 batzordekideetatik 26ren babesa jaso zuen. Berea izan zen hautagaitza bakarra. Lizoain-Arriasoitiko alkate Amaia Ekisoain da lehendakariorde berria, antzeko babesarekin. Zuzendaritza Batzordearen idazkaria Sakanako Garapen Agentziako Iker Manterola da eta diruzaina, berriz, EHNEko Joseba Etxarte.

Lehenengo aldia da Garalurren presidentzia emakume batekin. Elkartea azken urtean genero berdintasun plan bat ezarri du, eta, horren baitan, elkartearen estatutuaren bere gobernu-organoei ordezkaritza parekidegoa izan dadin beharra jaso da. Politika horren ondorioz Zuzendaritza Batzordean emakumeen presentzia nabarmen igo da, aurreko legealdiko %25etik %41,18ra,



Ibarreko hiru eskualdeak ordezkatuz batzarreko kide dira Ainara Aiestaran (Arakil), Karmele Maraño (Aranaz) eta Javier Olló (Burunda). Bestalde, elkarte bazkide gisa Sakanako Enpresarien Elkarte zegoen eta Sakanako Garapen Agentzia, Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen elkarte eta Altsasuko Dendarien elkarte sartu da.

hala estatutuek agintzen dutena beteaz. Bestalde, gobernu egituren berritzearen ondorioz mendialdeko erakunde sozial eta pribatuen parte hartzeak gora egin du ere.

Asmoak

EH Bildutik jakinarazi dutenez,

Cederna-Garalurren funtzionamendua tokiko errealitatearekin egokitu eta ordezkaritza eragilearen parte hartzean sakondu nahi du. Gauza bera gardentasunari eta parte hartzeari dagokionez. Koalizioak aurkeztu duen programa sektore publikoko eta pribatuko ekarpen-

kin osatu duela adierazi du. Hartan agertzen diren ideietako batzuk dira: tokiko batzorde sektorialak indartzea udalen eta erakunde pribatuen parte hartzearekin; langile berriek bi hizkuntzatan lan egitea bermatu; premiazko lehenetasunak identifikatu eta eskualde mailako

proiektuak izan; garapen endogeneoaren aldeko lehenetasuneko proiektuak martxan jartzea; emakumeen ahaluntzea eta parte hartzea; Iparraldearekiko lankidetzak, tokiko garapenarendako aukerak zabaltzeko eta prestakuntza hainbat arlotan.

xalok gimnasioa 2015/2016 ikastaro eskaintza

	ASTELEHENA	ASTARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA
9:00	AMONUA SAIOAK (16:00-16:55)		AMONUA SAIOAK (16:00-16:55)		AMONUA SAIOAK (MONITOREAREKIN)	
10:00	AMONUA SAIOAK (16:00-16:55)	SABEL DANTZA (11:00-11:55)	AMONUA SAIOAK (16:00-16:55)	SABEL DANTZA (11:00-11:55)		ORRIEN INTENTZIOAK (10:00-11:55)
11:00	AMONUA SAIOAK (16:00-16:55)	SORBALDA TALEARRA (11:00-11:55)	AMONUA SAIOAK (16:00-16:55)	SORBALDA TALEARRA (11:00-11:55)	ASTENDIBURUGARRIN SAIOA (16:00-20:55)	
12:00					(9:00-11:00)	
13:00						
15:00	AMONUA SAIOAK (16:00-16:55)		AMONUA SAIOAK (16:00-16:55)			
16:00	ABDOMINALAK (16:00-16:55)		ABDOMINALAK (16:00-16:55)			
17:00	POWER PUMP TONE (17:00-17:55)		POWER PUMP TONE (17:00-17:55)			
18:00	AMONUA SAIOAK (16:00-16:55)	SABEL DANTZA (11:00-11:55)	AMONUA SAIOAK (16:00-16:55)	SABEL DANTZA (11:00-11:55)		
19:00	AMONUA SAIOAK (16:00-16:55)	SORBALDA TALEARRA (19:00-19:55)	AMONUA SAIOAK (16:00-16:55)	SORBALDA TALEARRA (19:00-19:55)		
20:00	POWER PUMP TONE (20:00-20:55)		POWER PUMP TONE (20:00-20:55)		POWER PUMP TONE (20:00-20:55)	

948 460 993 - 661 541 431 - Burundabidea 14 - Etxarri Aranatz - www.xalok.es



Raf Atxuri

astekoa

Migrarien udazkena

Udazkena eta udaberria ditugu historiari eta aurre historiari ere animalien eta gizakien migrazioen urtarok. Ardiak larre aldatzeen aitzakian irailean mendiak utzi eta beheko belardien peskizan mugitzen dira. Txoriek, hegaztiak urteroko joan etorri luzeari ekingo diote bidaia senaz.

Aurtengoan, ordea, ehunka mila gizakiren migrazioaren gertaera Europako bazter batzuetako bideak, erakundeak eta jendearen kezka astintzen ari da. Siriako gerra ez da atzo goizekoa, baina aste gutxitan gure begien aurrean lehertu da eta komunikabideetako lerroburuak bete ditu.

Hurbilegi dauzkagu Hungaria, Grezia, Austria, Serbia edo Kroazia auzi honi ihesegiteko eta irudien gordina latzegia gertatzen ari da geure zereginetan epelean goxo etzanik jarraitzeko. Gerrak eragindako iheslari samalda hauei harrera egiteko hasiak dira European barrena herritar talde batzuk ekimenak

eta elkartasuna antolatzen eta Europar Batasuneko goi agintariak kuota eta zenbakiakin ados jarri ezinik gizar-tearen presioak nondik joko zain daude.

Balkanetako azken gerren irudiak ahaztuxek genituen XXI. mendeko hasiera honetan hara non oinez eta trenz bideak betetzen dituzten jende multzoak ikus-

ten ditugu Munich eta Eskandinavia helburu.

Aurtengo Municheko Oktober Fest-ek desberdina izateko arrazoi ugari ditu, auzi honek hamai-ka ertz ditu eta larreak eta mendiak orbelez bete aurretik egin beharreko batzuk bete beharko dira. Europako duintasuna jokoan da.

barrutik kanpora

Portlandek iraungitzen utzi du hondakinak erretzea ahalbidetzen zion 2013ko urtarrilaren 16ko baimena

Albiste ona da sakandar guztiondako Portlandek hondakinak erretzeko zuen baimena iraungitza jo dela jakitea. Horixe zen 3MB Plataformak, gai honen aurka hamar urte lanean eman ondoren eta gure bailaran eta inguruko eskualdeetan hainbesteko gaitzespena jaso duela kontuan harturik, espero zuen amaiera.

Enpresak bere proiektua gizar-tearen iritzia kontra inposatuko ez zuelako hitza eman

bazuen, urte hauetan guztietan behin eta berriz argi eta garbi geratu dela uste dugu herritarrek ez dutela inondik ere beren etxe atari aurrean egingo litzatekeen hondakin errausketarik nahi.

Enpresa era guztietara saiatu da bere proiektuak ekarriko litzatekeen onurez gizar-tea konbentzitzen. Diru ugari xahutu du bere negozio berria saltzeko marketing kanpainak egiten eta ez zaio batere inporta izan bere errausketa

proiektua aurrera aterako ez balitz lantegia itxiko litzatekeela mehatxu egin eta beldurra zabaltzea.

Ondo egiten du enpresak herritarren borondatea errespetatzen, eta aurrerantzean sekula berriz ez duela negozioa bere labeetan erretzeko hondakin kudeaketarekin dibertsifikatzeko asmorik izanen espero dugu.

Eta hau esanik, ezingo dugu garaipenik ospatu ez badugu gure Komunitatean hondakin kudea-

ketatik errausketa/balioztatze energetikoa betirako baztertzen.

Laster hasiko dira berriz Nafarroako hondakin plan berria egiteko lan saioak. Proposatzen den bezala, hiri eta industria hondakinak erraustu ahal izateko prestatu behar badira, hau da, eufemistikoki HEE (Hondakinetatik Eratorritako Erregaiak) deitzen diren gaietan bihurtu, gero zementu-fabriketan edota energia balioztatze plantetan

erraustuz bukatzeko, berriz ere lehenago edo beranduago, leher egin dezakeen arazo baten aurrean geundeke.



<http://olaztinerausketarikez.blogspot.com.es/>

hara zer dien

Sexuen hezkuntza: irakaskuntzako erronka

Ikasturteari hasiera eman zaio, eta ausartuko naiz esatera oraingoan ere ikasgeletan ikasgai garrantzitsua faltan botako dugula. Haur eta gazteen apalak matematika, gizarte, hizkuntzak ikasteko liburuekin beteko dira, baina ziurrenik sexuen hezkuntzaz gutxi entzungo dute.

Sexuen hezkuntza zerbait berria badirudi ere, aspaldidanik dabil sexologoen ahoetan, aipatu besterik ez dago Efigenio Ame-

zúa sexologoak aspalditik jorratuta daukala sexuen hezkuntza ikasgai gisa ezartzeko materiala. Hala ere, badirudi oraingoz hezkuntzako arduradunei gaia-ri heltzea kosta egiten zaiela.

Hau irakurritakoan askok pentsatuko dute beraien ikastetxeetan egiten dela, eta beraz aipatutako gabezia gaindituta dutela. Hasieran aipatu dudana ausardiari helduz, esango nuke sexualitatearen gaia jorratzen dutela, batzuetan

sexologoek geletara sartzen direla, baina interbentzioak ordugutxi-koak dira, gehienetan DBH-kogele-tara murrizten dira eta interbentzioen jatorria prebentzioan dago. Hauda, urteetan sexualitatea genitalen gaietara murriztu izan ohi da, eta, beraz, sexualitatea lantzeko garaian harreman genitalen ondorioz sortu zitezkeen gaixotasunak edonahigabeko haurdunaldiak ekiditeko sortu ziren sexualitateko tailerrak. Gauregun, orain-

dik ere sexologoei deitzen digutenean gehienetan antzeko helburuak aipatzen dizkigute, nahiz eta gu saiatu esaten sexuen hezkuntza eremu zabalagoa dela eta guk emakumez, gizonez eta beraien harremanez hitz egitean nahi dugula. Noski, horretan saiatzen gara, baina 6 orduko tailer batean dena nahiko motz geratzen da.

Hau dela eta, eta Holandan duten eredu ezagututa, helburu polita izango litzateke gurera han

duten antzeko egoera sustatzea, eta, horrela, Holandan gertatzen den moduan, Haur Hezkuntzatik hasita, musikak, hizkuntzak, matematikak eta gizar-teak duten espazioa sexuen hezkuntzak ere edukitzea. Txiki-txikitatik emakumez, gizonez, gure gorputzez, identitateaz, eta gure arteko harremanez ikasteko eta hausnartzeko aukera izan dezagun.

Olatz Berastegi

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Patxi Flores
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
 s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
 ETA KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikako Salburuordetza

GAZTETXEROEN ARTEKO DESAFIOAK: Altsasuko Gazte Asanbladak antolatuta ditu. Lehena, futbol partida, bihar, 19:30ean jokatuko da Dantzalekun. Lastailaren 2an

pankarta lehiaketa, 9an karaoke lehia eta 10ean mozkor-kirolak izanen dira. Izen ematera animatu dituzte gaztetxeroak.

sakanerria >>

SAKANA

Emakumeen Mundu Martxa asteartean Sakanan

Asteartean, 11:00etan, Altsasuko Baratzeko bide plazan jarri du hitzordua mugimendu feministak

IV. Nazioarteko Emakumeen Mundu Martxak *Geure gorputzak, geure lurraldeak. Martxarekin jarraituko dugu guztiok libre arte* leloa du. European barnako karabanak bere ibilbidea Kurdistanen abiatu zuen martxoaren 6an eta Coimbra despidituko du lastailaren 17an. Ibilbidea osatzen ari den furgoneta bat da martxaren ikurra.

Martxa zeharkatzen duen herrialde guztietan "eredu kapitalista eta heteropatriarkalaren aurrean emakumeek dituzten alternatiba feministak sustatzen eta ikusgai egiten" ari dira. Martxaren bidez emakumeek bizi

Egitaraua

11:00ak aldera iritsiko da Martxa Altsasuko Baratzeko Bide plazara. Han harrera egingen zaio. Segituan, musikaren doinura Helena Santanoren action-painting edo margotzea izanen da. Mugimendu feministak bere eginduen more kolorekoak diren izpiliku edo labanda landareak landatuko dituzte. Ibilbide bakoitzean egiten ari direnari jarraituz, Martxa osatzen ari den furgonetari Sakanako hazi bat utziko diote. Gainera, ekitaldira hurbiltzen diren pertsona guztiek hazi bana izanen dute opari. Martxari egindako harrera auzatearekin despidituko da.

dituzten askotariko indarkeria-motak ikusarazi eta salatu nahi dira, zapalkuntzak sustatzen dituzten eragileak identifikatuz.

Nazioarteko ibilbidean Martxak munduari erakutsi nahi dio emakumeak "erresistentzian ari garela eta ez dugula amore emanen gure gorputzen gainean erabaki ahal izan arte. Modu askean, beste modu batean sortzea eta bizitzea posible" dela baieztatu dute. Aldi berean, Martxarekin tokian tokiko mugimendu feminista indartu eta zabaldu nahi da.

Aldarrikapenak ereiten

Haziak dira martxaren ikurra, elikadura-buru jabetzaren aldeko borroka gogoan. Martxa pasa



Mugimendu feministako kideak martxaren etorrera iragartzen.

ahala borroka feministako haziak ereiten ari dira etxeetan, balkoietan, baserrietan, baratzeetan,

parkean, lokaletan, lorategietan... Tokian tokiko hazi eta landareak dira.

Arruazu



Arbazuarrek itsas faktorian, baleontzia nola ari diren egiten begira. UTZITAKOIA

Arbazuarrek San Joan baleontzia ezagutu dute

Arruazuko Udalak antolatuta, larunbatean, adin guztietako 68 arbazuarrek Pasaia bidea hartu zuten. Autobusa 10:00etan abiatu zen eta Pasaia San Pedron utzi zituen. Handik 10 minutuko ibilaldia egin zuten arbazuarrek Albaloa itsas fak-

toriara iristeko. Sakanako haritzekin hantxe ari dira San Joan baleontziaren errepika egiten. Eguerdian ekin zioten bisita gidatuari.

Hura despidituta, Pasai Donibanera jo zuten arbazuarrek, batzuk itsasontzian, autobusean

besteak. Bermutaren ondoren herri bazkaria egin zuten arbazuarrek. Herria hobeki ezagutzeko paseoa egin zuten eta 18:30ean, egun pasa zoragarriaren ondoren, herrira bueltan ekarri zituen autobusak.

SAKANA

Nortasun Agiria Iruñean egitera

Ilbeltzean, berriro ere, Altsasun egiteko aukera izanen dela aurreikusituta

NAN (Nortasun Agiri Nazionala) Leitzan, Altsasun, Tafallan, San Adrianen eta Elizondon tramitatzeko talde mugikor bat du Espainiako Polizia Nazionalak. Baina zerbitzu hori azaroan eta abenduan bertan behar egelditukoda. Espainiako Gobernu Ordezkaritzatik jakinarazi dutenez, NAN-ren bertsio berria egin ahal izateko lan tresnetan moldaketa teknikoak egin behar dituzte eta, horregatik, etengo dute herrietako zerbitzua. Urte hasieran ere arazo informatikoengatik eten zen zerbitzua.

Agiria egin nahi duenak Iruñeko Pascual Madoz kaleko 4. zenbakira jo beharko du. Aldez aurretik hitzordua lotu beharko du. Horretarako daude 902 247 364 telefonoa, 060 telefonoa eta www.citapreviadnie.es web orria. Iruñean momentuan ematen dute NAN. Zalantzen bat duenak ondoko telefonoetara hots egin dezake: 948 292 935, 948 292 936, 948 292 937 eta 948 292 938.

Gurasoendako jolas ikastaroa

Sakanako Mankomunitateko Euskara eta Immigrazio Zerbitzuek *Jolas-tuko gara?* izenburuko ikastaroa antolatu dute. Gurasoek haurrekin euskaraz jolasteko jolasak ikasiko dituzten hartan. Ikastaroa doakoa da eta Dindaia fundazioko kideek ematen dute. Arbizun edo Altsasun egiteko aukera dago.

Arbizuko haur eskolak lastailaren 26an eta azaroaren 2an, asteartearrekin, hartuko du ikastaroa, 17:00etatik 18:30era. Izena eman nahi duenak hilaren 20ra arte du. Altsasun, beriz, azaroaren 9an eta 16an izanen dira, astelehenarekin, 17:00etatik 18:30era haur ikastolan. Izen ematea hilaren 27ra arte izanen da zabalik.

Izen-ematea

948 464 840 edo 648 070 710 telefonoetara hots eginez edo euskara@sakana-mank.com edota immigrazioa@sakana-mank.com e-postetara idatziz.

Amaya
Okindegi-gozotegia

ARAI 945 314 572

ALTSASU

- Lantegia: Texeria aldapa 948 562 205
- Zumalakarregi plaza 948 468 026
- Amaia supermerkatua
- Otadiako Kristo Deuna plaza, 19. 948 562 185
- Gipuzkoa 4
- San Juan kalea 50. 948 564 053
- Netto 659 288 401

okindegia - gozotegia - kafetegia - ogia - pastelak - kafea - txokolatea - pastak - bonboiak...

ALTSASU **OLAZTI** **ETXARRI**

948 468 755 948 461 660

» Altsasu

Pozoitzeen kontrako martxa

Larunbatean, 18:00etan, Altsasuko Zumalakarregi plazatik abiatuko da manifestazioa. Pozoitu dituzten txakurren jabeek elkartzatuna adierazi eta guztion osasunaren alde manifestatzeko deia egin du Huellas de Altsasuk

Hilaren 12an Limacol, Babosil eta haragi txikituz osatutako haragi pilotak agertu ziren Altsasun. Haiek jatearen ondorioz lau txakur hil eta beste 3 larri zauritu ziren. Foruzaingoak bost salaketa jaso zituen eta ikertzen ari da. Txakur jabeen artean gertatzen zenaren berri azkar zabaldu zen. Hurrengo egunean txakurren pozoitzeak salatzekeo martxa isila egin zuten Altsasun. Baina gertaera bere horretan ez uzteko, txakur jabeek batzarrera deitu zuten hilaren 15erako. Orduan jaio zen Huellas de Altsasu taldea. Txakur jabeek eta gertakarietan kezkatutako pertsonak osatzen dute; 20 eta 30 bat kide dira.

Taldeak lau helburu ditu: informazio fidagarria komunean jarzea; pozoitzeak egin dituenak opatzeko lorratzak opatzea; gertatutakoaren garrantzia argitzekeo informazio iturri berriak opatzea (pozoia, tokiak, kutsatutako eta hildako animalia guztien kopurua eta pertsonak kutsatu ote diren) eta, azkenik, gertatutako publikoki salatzea eta euren protestara ahalik eta jende gehien batzea. Amaia



Huellas de Altsasuko kideak manifestaziora deitzen. Eserita: Amaia Bengoetxea, Amalia Vilas eta Anparo Bengoetxea.

Bengoetxeak argitu digun moduan, xede nagusia, egilea(k) harrapatzea da.

Taldeko kide Amalia Vilasek salatu duenez, gertatutakoa osasun publikoaren eta ingurumenaren kontrako ekintza bat da. Baita animalien gaitortzearen tratu txar kasu bat ere. "Gizalegearen kontrako eraso koldarra izan da, berezi gabe, nahita min egiteko propio egina". Halakorik berriro ez errepikatzea espero dute taldekideek, baita "egin duenak ordaintzea" ere. Nabarmendu du haurren jolas parkeen ondoan agertu direla haragi pilota pozoituak, "feste-

tan, haurrak askeago dauden garaian". Edozer gauza gerta zitekeela nabarmendu dute.

Tokiak eta beldurra

Hilaren 12an eta 13an Amandrea, Otadia, Idertzagain eta Amaia kaleetan, San Joango baratzetan, Gazte txokoaren patioan, Dantzaleku eta San Pedro zelaian agertu ziren. Gerora haragi pilota pozoitu gehiago azaldu dira, "zaharrak" diruditenak. Guardia Zibilaren Sepronakoak txakurrekin etorriko dira inguru guztiak begiratu eta haien bidez gelditu daitezkeen haragi pilotak opatzeko. Haragi

pilota pozoitu bat opatuz gero Foruzaingo jakinaren gainean jarri behar da. Poliziak behar bezala hartu eta epaiketan proba gisa aurkeztuko luke.

Horren guztiaren ondorioz, "txakurrak ezin dira aske edo muturrekorik gabe ibili. Ezta txakur guneetatik kanpo ere, pozoia dagoen ere ez dakigulako", gaineratu du Vilasek. Huellas de Altsasuko Anparo Bengoetxeak azaldu duenez, astelehenean Burlatan hildako 13 txakur izan ziren. Gasteiz, Bilbo, Santander edota Iruñean halako gertakariak izan direla ohartarazi du. Anparok gazti-

Heziketa

Pozoia zabaldu duenak zer eskatzen duen ez dakitela esan digu Amaiak: "hitzeekin esan ez dutenez, ez dakigu zein den euren kezka". Vilasen gaineratu duenez, "nagusien akatsa dena ezin dute txakurrek ordaindu. Animaliek ez dute errurik". Horrela, ezer ez dela lortzen, beldurra eta kezka hedatzea besterik ez esan digute Huellas de Altsasukoek.

Alde bateko eta besteko pertsonak hezteko "oso garrantzitsutzat" jo du Amaiak. "Altsasun txakur asko daude eta denok ez daukagu pentsamolde bera. Baina komuneko puntu batera iritsi beharko dugu, guztiok elkarrekin bizi behar baitugu". Egitekoaren zailtasuna ere aitortu digu Amaiak: "Altsasun ez dago txakurren kulturarik. Orain gutxira arte libre ibiltzen ziren, herri txikietan bezala. Gauzak aldatu dira. Jende guztia errespetatu behar da. Txakurrekin beldurtzen den jendea dago eta, horregatik, zentzuz jokatu eta txakurra lotuta eraman behar da". Guztien elkarbizitzaren alde txakur jabeek euren animalien kakak jaso behar dituztela ere esan digu.

gatu du San Pedroko haragi pilota pozoituak basa-animaliek jan zitzaketela. Katuak ere hil direla nabarmendu du.

» Etxarri Aranatz

Ennecok administrazio bidea egiten segitzen du

Etxarri Aranazko Udalak Enneco, haritzaren memoria parkea hartuko duen lur-sailari lotutako Hirigintza Udal Planeko egiturazko aldaketa onartu zuen behin-behinean. Nafarroako Gobernuak behin betiko oniritzia emateko Ingurumen Departamenduaren oniritzia behar zen eta hori aste artean iritsi zen.

Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusia, Eva Garcia Balaguerrek dioenez, parke tematikoarekin "kultur eskaintza sustatu eta taxutu nahi da, baliabide natural,



Enneco parkearen banaketa zehaztuta dago eta bideak eginak.

historiko eta kulturalak abiapuntutzat hartuta, bai eta ekipamendu gunean dagoen dehesa itxurako hariztia lehengoratzea ere".

Hala ere, parkearen sustatzaile den Nafarroa Bizirik fundazioari zenbait neurri hartzea eskatu dizkio: gaueko ingurunea babesteko argiteria publikoaren emisioak mugatzea eta kanpineko eta parkeko itxiturek bat ez egitea, hesi efektua saihesteko.

Eneka Maiz Ulaiar alkateak aurreratu digunez, lastailerako espero dute azken oniritzia. Aurreratu digunez, udalaren asmoa da parkea hartuko duen eremuaren erabilera epe baterako eta baldintza jakin batzuekin fundazioari uztea.

SAKANA

Etzegarateko bidesaria 2017rako aurreikusi dute

Gipuzkoako Foru Aldundiak 2017rako martxan izan nahi du Etzegarateko bidesaria. Asmoa gauzatu gero kamioiek A1 autobian ibiltzeagatik ordaindu egin beharko lukete. Nafarroako Gobernu presidentea Uxue Barkos Berruezik "gaiaz hitz egiteko eta horrelako erabaki batek eragin ditzakeen ondorioez eztabaidatzeko aukera izatea" espero duela esan du.



Sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILA

Patxarana egiteko anisa
3 litroko garrafak

24ºtakoa
28ºtakoa
35ºtakoa

Geltoki auzoa 11
Altsasu
948 467 317 · 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

Ogiaren artisaunak

PORTUKO okindegia

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153

>> Altsasu

Martinez absolbitua

Donostiako aske gunean militantzia politikoagatik atxilotzeko agindua zuten gazteen babes giza harresian parte hartu zuen Edurne Martinez Arresek (2013ko apirilaren 19an). Ertzaintzak altsasuarra atxilotu zuen eta agintearen kontrako atentatua leporatu zion (15 hilabeteko espetxe zigorra eta isuna). Garilaren 2an egindako epaiketan fiskaltzak eskaera aldatu eta erresistentzia leporatu zion (10 hilabeteko espetxe zigorra eta isuna). Azkenik, epaileak Martinez absolbitu egin du. Ordena publikoko falta bategatik 300 euroko isuna ordaindu beharko du, Ertzaintzak eskatu zuenean tokia utzi ez zuelako.

Martinez auzipetzea zela eta, Edurnerekin bat dinamika sortu zen Altsasun. Hasieratik "muntai



Edurne Martinez Arrese elkarrizketatu zuten haren aldeko ekitaldi batean.

polizial argia" izan zela salatu zuen eta "epaiketa politikoak etete" lan egin zuen. Horregatik, Edurnek Topatu.info atariari egindako adierazpenetan "muntai polizialak etetea lortu" dela adierazi du. Dinamikako kideek

Hitzondo.net-i adierazi dioenez, "dugun arma bakarrarekin utzi dugu muntai bertan behera: borroka, konstantzia eta elkartasuna. Jarrai dezagun bide horretatik, haien tresna eta estrategia guztiekin bukatzea lortu arte".

SAKANA

Alternatiben Herria dinamikan parte hartzera deitu dute

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren baitan prestatzen ari dira Alternatiben Herria dinamika. Foro zabal horretan Euskal Herria mailan alternatiben inguruan lanean dauden norbanako eta kolektiboak elkartuko dira. "Euskal Herrian nahi dugun eredu sozial berriaren definizioan urratsak ematea eta martxan dauden proposamenak azalaraztea, bide honetan dauden mugimendu sozialen kohesioa indartzea eta kontzientziatze ideologikoan sakontzea dira lastailaren 24ko helburu nagusiak".

Egun horretan euskara, hezkuntza eta kultura eremuetan dauden eztabaidak zein alternatibak plazaratzeko aukera izanen da. Batzarra Andoingo Martin Ugalde kultur parkean izanen da. Izen ematera animatu dute Kartaren sustatzaileek.

>> Urdiain

24 orduko lanuztea Magotteauxen

Lanean zela, langile bat gaizkitu eta hil egin zen Urdiaingo Magotteaux enpresan astelehen goizean. Osasun zerbitzuak enpresara hurbildu ziren, baina 42 urteko gizon ordiziarraren alde ezer gutxi egin ahal izan zuten. Bere lankideak, dola adierazteko, asteleheneko 14:00etatik astearteko 14:00etara lan-uztea egin zuten.

>> Altsasu



Batzokiko masta, ikurrina gabe.

Batzokiko bandera moztu dute

Hiru urtetan hirugarren aldiz lapurtu dute jeltzaleen egoitzatik ikurriña

Bakea kalean dagoen Batzokiko ikurriña igandean moztu zuten. Hiru urtetan hori egiten duten 3. aldia da. Aurrekoak 2013ko azaroaren hasieran eta 2014ko irailan (festetan) lapurtu zituzten. EAJ-k gertaera salatu du. Bestalde, jeltzaleek bere alderdikide eta zaleak igandean Forondako zelaietan ospatuko den Alderdi Egunera joateko deia egin dute. *Zuzara gure indarra* goiburua du deialdiak. EAJ 2015 urte honetan ospatzen ari da bere sorreraren 120. urteurrena.

SAKANA

Frankismoaren azken fusilamenduak gogoratzeko ekitaldia debekatua

Espainiako Gobernu Ordezkariek igandean, 17:30ean Altsasuko San Pedro ermitaren parean ezker abertzaleak antolatutako ekitaldia debekatu du

Frankismoaren azken exekuzioetatik igandean 40 urte beteko dira. Guda-kontseilu baten ondoren Juan Paredes Manot (Txiki) eta Angel Otaegi ETA kideak eta FRAP-eko José Humberto Baena, José Luis Sánchez Bravo eta Ramón García Sanz fusilatu zituzten. Gertakari haiek gogoan ekitaldia antolatua zuen ezker abertzaleak, *Herri izarrek ez direla itzaltzen...* leloa zuena. Baina

Espainiako Gobernu Ordezkaritzak debekatu egin du ekitaldia eta bertan behera utzi dute.

Ezker abertzaletik adierazi dutenez, "duela 40 urte bezala, estatu espainiarra estatu ez demokratikoa dela baieztatzen du engarren aldiz". Deitzaileek salatu dutenez, "memoria bera debekatu nahi digute". Debekua salatzeaz aparte, "memoria ariketa kolektibo gisa lantzeko eta aldarrikatze antolatuko diren eta antolatzen diren ekimenetan parte hartzera deitu nahi ditugu Sakanako herritarrak, eskubide

oso" Ezker abertzaleak, "modu batera edo bestera" memoria aldarrikatzen jarraituko duela ziurtatu du.

Asmoa

Irailaren 27 hartako "gertakariak gogoratu eta nondik gatozen jakinez, etorkizunerako bidea egiten jarraitzeko" asmoa zuen ezker abertzaleak igandean. Fusilamendu haien harira ezker abertzaleak salatu duenez, "herri honen bizipen eta historiaren kontakizun partzialak gain hartzea nahi dute gure memoria kolektiboa zapuz-

tu nahian. Horretarako legedi berezia eta errepresioa erabiliz". Aurreko astean Otxandion izandako atxilotetak jarri ditu adibide gisa.

Ezker abertzaletik zehaztu dutenez, "herri baten kontakizunak erpin eta ikuspuntu ezberdinen bildumak osatzen dute baina estatuak kontakizunaren alde bat bakarrik inposatu nahi du. Errealitatea, berriz, tenkorra da eta behin eta berriz azalarazten ditu estali nahi duten kontakizunaren atala, herri borondatea ezin baita lege aginduz zapuztu".

>> Etxarri Aranatz

Mandoibai elkarteak Restrepo ekarriko du berriro

Jairo Restrepo Rivera Nekazaritza birsortzailean munduko aditu ezagunetarikoa bat da. Mandoibai elkarteak gonbidatuta, Restrepok ikastaro bat eman zuen Etxarri Aranzten maiatzaren 26an. Azaroaren 3an, 4an eta 5ean, atzera ere bueltan izanen da. Oraingoan *nekazaritza organikoaren abc-a* tailerra emanen du. Etxarri Aranzko kultur etxean izanen dira klase teoriakoak eta praktikak Legarben. Izen ematea www.agriculturaregenerativa.es web orriaren bidez egin behar da. Haren bidez 50 euroko ordainketa egin behar da lehenik eta gero beste 100 euro gehiago pagatu beharko dira.

Noainen beste ikastaro bat eman ondoren, azaroaren 9an,



Mandoibai elkarteak kide batzuk herri baratzean.

Restrepo Arruazuko Albi gaztandegian izanen da auditoria bat

egiten. Hau da, adituak larreak nola dauzkan baloratu, behar dute-

Makrobiotika

Mandoibai elkarteak lastailaren 16 eta 17rako antolatu du ikastaroa, Hartzabal elkartearen ostiralean 15:00etatik 20:00etara ariko dira eta larunbatean gosaltzera elkartu eta 20:00ak bitartean. Saioretan teoria eta praktikak uztartuko dituzte. Prestatutako jakiak bazkari eta aforietarako erabiliko dituzte. Izena emana nahi duenak elkarteak kideei esan behar die. 60 euro balio du izen emateak eta horri elkarteak gastuak gehitu behar zaizkio.

na eta behar ez dutena azaldu eta larreak nola erabili azalduko die hara biltzen diren artzainei.

SAKANA



Aritz Ganboa De Migel.

Epaiketa eguna jarrita

Askapenako bost kide Espainiako Auzitegi Nazionalen epaituko dituztela salatzeak sortu da Herriak Libre dinamika. Epaituetako bat Aritz Ganboa De Migel arbazuarra izanen da. Herriak Libre dinamika kideek adierazi dute ez dutela onartzen "espainiar estatuak euskal eragile internazionalistak eta euskal eragile internazionalistak epaitzea". Horregatik, espainiar estatu berari herri epaiketa eginen diote. Sakanan lastailaren 2an izanen da, ostiralean, 19:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean.

SAKANA

Mintzakide, euskara erabiltzeko auzolana

Euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta ez dutenak elkartzen ditu programak. Bederatzigarren urtez Sakanan izen ematea zabalik dago, 600 482 024 telefonora hots eginez edo Itsasi euskaltegian

Ikasitako euskara praktikatzeko edo herdoildutako euskarari dirdira ateratzeko. Horretarako balio du Mintzakide programak euskara praktikatzeko. Inguruan euskaldunik ez dutelako, lagun arteko joera haustea zaila egiten zaiolako edo lotsagatik dakiten euskara praktikatuz gabe gelditzen dira sakandar asko. Horri buelta emateko, Mintza-



Olatzagutian pasa den ikasturtean aritutako mintzakideak.

kide programak euskara dakien jendearekin harremanetan jartzen ditu eta lauzpabosteko talde txiki-

taneuskaraz lasai hitz egiteko aukera ematen du. Gainera, nahi den jarduerak praktikatu: kafea edan, pase-

Igandetik aurrera Familia Mintzakide Irurtzunen

Familiak elkartu eta elkarrekin euskara praktikatzeko irteerak antolatuko dituzte. Lehen, Arrantzaleen Bidean (Irurtzun-Latasas-Irurtzun), igandean, 10:00etan Irurtzungo plazatik abiatuta. Aizpea, Irurtzungo euskaltzaleen topagunea eta Sakanako Mintzakide programa elkarlanean sortutako eskaintza da Familia Min-

atu, zinemara edo mendira joan...

Mnak-eko Euskara Zerbitzuak diruz laguntzen du eta Sakanako AEK-k koordinatzen du. Irurtzun, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olatzagutiko taldeak aurki hasiko dira.

tzakide. Ekimen horrekin familia barruko hizkuntza harremanetan eragin eta euskararen transmisioari bultzada eman nahi zaio. Familia euskaldunen eta euskalduntze bidean egonda jarduerak osoan zehar euskaraz hitz egiteko gutxieneko maila duten guraso eta seme-alabei zuzenduta dago.

Izen ematea
Igandean bertan. Harremanetarako: aizpeataldea@yahoo.es edo 600 482 024 telefonoan (Sakanako Mintzakide).

Baina bere herrian taldea sortunahi duenak izen ematea du, doakoa da. Joan den urtean 62 sakandar aritu ziren. Edozein sakandarrek parte hartu dezake. Astean ordu bat, ez da besterik eskatzen.

Irurtzun

Gurelurrek Ergako ermitako telefonia antena ilegal salatu du

Gurelur elkarteak herrietan eta natur guneetan telefonia antenak legez kanpo jarri direla salatu du. Haietako bat Trinitateko Erga ermitan dago. Eraikinak ondare historiko-artistiko izendapena du. Ingurumenaren zaintzan lan egiten duen elkarteak kideek jakinarazi dutenez, enpresa bakar batek jarri ditu, Nafarroako Gobernuaren oniritzirik gabe eta halakoak arautzen dituen Azpiegitura Lurralde Planari jaramonik egin gabe.

Gurelur kexu da Nafarroako Gobernu eta udalak jakinaren gainean daudela. Eta Guardia Zibilaren Seprona atalaren salaketa ere badu foru administrazioak. Antenak kentzea dagokien departamentuei haiek kentzeko eskatuz salaketa aurkeztu zuen Gurelurrek agorrilean.

Harridura

Alkatetzan dagoen EH Bilduko Eduardo Murugarren Frances



Trinitate ermita eta antena.

zinegotziak esan digunez, "antena duela sei edo zortzi urte dago jarrita, ermitaren atzeko aldean, Iruñerria begira, ez da asko ikusten". Horregatik, hainbeste denboraren ondoren salaketaren berri izateak harridura sortu du. Bestetik, Murugarrenek zehaztapen bat egin nahi izan du: "Ergako Trinitate ermita Itza zendeako Aginagako lurretan dago".

Altsasu

Amiantoak hildako langilearen familiari kalte ordaina



Amiantoaren arriskuaz gaztigatu du askotan Asviamie elkarteak.

Asviamie elkarteak "positibotzat" jo du enpresak kalte ordaina adostea, familia etengabeko helegiteekin zigortu beharrean

Burnizko SAK, Sunsundeguiaren jabeak, eta hildakoaren familiak akordioa lortu dute eta enpresak 60.000 euroko kalte ordaina pagatuko dio zenuaren alargunari eta alabari. Gizona 1966 eta 1992 urte-

en artean lan egin zuen enpresan, amiantoaren zuten bagoiak konponzen. 2013ko apirilean amiantoak eragindako mesotelioma pleurala, minbizia, atzeman zioten eta 2014ko otsailean hil zen. Lau hilabete geroago Gizarte Segurantzak gaitz profesionaltzat hartu zuen hildakoaren gaixotasuna.

Aurten 12 hildako

Eragin ditu Hego Euskal Herrian amiantoak elkartetik jakinarazi digutenez. Asviamietik ere jakinarazi digute Sunsundegui amiantoarekin lan egin zuten beste bi langilearen kasuen berri badutela. Haietako bat hilik dago.

Euskadiko Amiantoaren Biktimen Elkarteak (Asviamie) jakinarazi duenez, hildakoak bagoien panelak desmontatu eta amiantoaren estalita zeuden berogailuaren hodiak konpontzen zituen edo berogailuaren eta aulkien arteko amianto plakak mozten zituen. Lan horregatik amianto fibrak tailer guztian zabaltzen ziren, gero erratzat pasatzean jaso eta paperontzian bukatzen zutenak. Asviamiek azaldu duenez, enpresak segurtasun neurrien faltagatik errekaratu demanda bati eta beste hildako batzuen familienei aurre egin beharko die.

SAKANA

Klinikaren informazio saioen segida

Josefina Arregi klinika psikogeriatrico profesionalak euren jakintza sakandarrekin partekatzen segituko dute heldu den asteartean. Erietzeko Jose Joaquín Roldan mediku psikiatraz hitzaldia emanen du Iortia kul-

tur gunean, 18:00etan. Jokabidearen trastornoak duten demen-tziadun pertsonenkin nola jokatu erakutsiko diete haiek zaintzen dituztenei. Besteak beste, gaixoaren urduritasun, oldarkortasun, aurkakotasun eta bes-

telako egoerei nola aurre egin azalduko du medikuak. Prestakuntza saioak aurreko asteartean hasi zituen klinikak, dependentzia duten pertsonak nola mugitu behar diren azaltzen zuen tailer baten bidez.



Klinikako langileak boluntario baten laguntzaz aritu ziren asteartean.

Egitaraua

- >> **Irailak 29, asteartea**
Jokabidearen trastornoak duten demen-tziadun pertsonen erabilera. Hitzaldia: Jose Joaquín Roldan (mediku psikiatraz).
- >> **Lastailak 13, asteartea**
Demen-tzia duten pertsonenkin nola

komunikatu. Hitzaldia: Carmen Etxabarrri (mediku neurologoa).

>> **Lastailak 27, asteartea**
Psikoestimulazioa etxean. Tailerra: Laura Moreno (neuropsikologoa).

>> **Azaroak 10, asteartea**
Adinduen sindromeak. Hitzaldia: Paola Roa-Granthon (mediku geriatra).

>> **Azaroak 24, asteartea**
Musikoterapia. Tailerra: Raquel Guerrero (okupazio-terapeuta).

>> **Abenduak 15, asteartea**
Bitartekoak eta gizarte laguntzak. Hitzaldia: Josune Lopez de Goikoetxea (gizarte langilea).

*Saio guztiak Altsasuko Iortia kultur gunean dira, 18:00etan.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com



Loli

Eguzkia bezalakoa zara,
estaltzen zara,
baina ez zara desagertzen.

Zure lagunak: M, M eta C



**Ana Mari
Andonegi Aldasoro**

I. urtemuga

Orain dela urte bat joan zinen gure artetik,
baina ez zara sekula gure bihotzetik irtengo.
Gure erdua izango zara beti.

Maite zaitugu.

Zure familia




**Oroigarriak
egiten
ditugu**

Nahi duzun
argazki
eta testuarekin

GUAIXE
KOMUNIKAZIOA

948 564 275
Foru plaza 23-1
Altsasu
argi@guaixe.eus



Miguel Gartzandia Balda

Elkarrekin bizi izan ditugun
une gogorrenetan ere,
irrifar batekin xamurtu gaituzulako,
mila esker, Osaba.

Jautan itxekuek



Miguel Gartzandia Balda

Aittuna

Baratzean nahi genuke ikustea zuri,
zure txistu eta kanta alaiarekin.

Oso harro sentitzen gara
erakutsi diguzun guztiagatik.
Beti gure bihotzean.

Zure ilobak:
Ametz, Larraitz, Asier, Igaratz, Olatz eta Maddi



Miguel Gartzandia Balda

(Lidia, gure banatzailearen aita)

Une latz hauetan bat
egiten dugu familiaren saminarekin.

bierrik
fundazioa




**Jaxinto
Garmendia Agirre**



...mendi hegaletan gora
oroitzapen den gerora
ihesetan joan hintzana.

Itxekuek



**Hainbat
aukera**

Galdetu

948 564 275



GRUPO
Funeraria
VASCONGADA
Ehorzketak
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: **943 106 222 • 943 376 980**

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarlan: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€. Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-564275
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Lana/ Negozioak

LAN ESKAINTZA

Bakaikuko Bakarreko-Etxea Elkartearen gartzeako pertsona bat behar da. Sartu elkarteko postontzira izena eta telefono zenbakia irailaren 25eko 21:00ak baino lehenago. Kontakua: baka-rekoetxea@gmail.com.

LAN ESKARIA

Lan egin nahi dut: animaliek (ez harategian, ez hiltzean), naturarekin zerikusirik duen lanaren batekin, banatzaile eta postari lanetan. Ez: fabriketan eta tabernan. Tel: 610 99 86 37 Ibon.

Aisia/Kirolak

MUSIKA

SALDU

Trikitrixu saldu nahi dut. Tel: 626 79 07 60.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Txantrean pisua salgai, Ezkaba plazan. 3 logela, berritua, igogailua, balkoi itxia, leiho abatibleak, berogailu zentrala etab. Ezkaba mendira eta Munduaren parkera bista ederrak. 120.000 €

negoziagarriak. Tel: 625 05 90 89.

Galdutakoak/ Opatutakoak

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

IKASTAROAK

Olaztiko Erburua kirolegian ikastaroen eskaintza (urria-maiatza). Izen emate epea zabalik. Yoga, pilates, aero-dance, indoor zirkloa, mantentze soinketa. Izen emateak eta argibideak: Erburua kirolegian edo 948 56 45 12 telefonoan.

JAIOTZAK

- **Asier Ibero Vidal**, irailaren 10ean Altsasun.
- **Malen Beraza Petriati**, irailaren 11n Arbuzun.
- **Amalia Beraza Larreta**, irailaren 12an Irañetan.
- **Lier Garziandia Iraurgi**, irailaren 13an Etxarri Aranatzan.
- **Alaia Barquilla Asurmendi**, irailaren 14an Altsasun.
- **Irai Berastegi Navarro**, irailaren 14an Arbuzun.

HERIOTZAK

- **Migel Gartzandia Balda**, irailaren

22an Arbuzun.

EZKONTZAK

- **Endika Alegria San Martin eta Andrea Razkin Burillo**, uztailaren 18an Lakuntzan.
- **Koldo Razkin Tamarit eta Anne Martinez Larrea**, irailaren 12an Lakuntzan.
- **Juan Carlos Alegria Garziandia eta Barbara Olano Razkin**, irailaren 19an Lakuntzan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

PILOTA

EZKURDIA-ZUBIETA SAN MATEOTATIK

KANPO: Bengoetxea eta Untoriaren kontra 22 eta 15, eta Olaizola II.aren eta Urrutiko-

etxearen kontra 22 eta 13 galdu eta gero, San Mateotako Binakatik kanpo geratu dira pilotari sakandarrak.

Aizkora



Vicenteri ia minutuko alde atera zion.

Ate handitik itzuli da Nazabal

Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa irabazi du etxarriarrak. Igandean Euskal Herriko I. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu du Aian

Igandean Nafarroako I. Mailako Aizkora Txapelketaren kanporaketa jokatu zen Uharteko Iruñean. 9 aizkolari lehiatu ziren Etxarri Aranazko ferietan jokatu den final handirako txartela lortzeko, eta bost onenak sailkatu ziren aipatu finalerako. Floren Nazabal etxarriarra plaketatik kanpo egon da azkenaldian, osasun arazoak zirela medio. Baina badirudi arazo horiei aurre egin diela, etxarriarra alde handiarekin onena izan baitzen Uharteko Iruñeko kanporaketan. Bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko mozteko 14:33-ko denbora behar izan zuen eta ia minutuko alde atera zion Daniel Vicente otsagiarrari (15:27). Nazabal eta Vicentez gain, Juan Jose Lopez (15:41), Jon Rekondo (16:03) eta Ruben Saralegi (16:26) sailkatu ziren final handirako. Finaletik kanpo geratu ziren Donato Larretxea, Julen Kañamares, Mieltxo Mindegia eta Oihan Larretxea.

Azken bi sailkatuek, Mieltxo Mindegia eta Oihan Larretxeak, lehen maila galduko dute, printzipioz. Dena den, Mieltxo Mindegia aukera izanen du Ander Erasunen aurkajaitiera kanporaketa eskatzeko, 15 eguneko epearen barruan.

IGANDEAN EUSKAL HERRIKOA

Nafarroako Lehen Mailako finale-ra sailkatu eta gero, Euskal Herriko I. Mailako Txapelketako finalerako txartela lortzea da Etxarrikoaren hurrengo helburua. Euskal Herriko I. Mailako Txapelketako kanporaketa igandean jokatu da Aian. 12 aizkolari lehiatuko dira: Aitzol Atutxa, Iñaki Azurmendi, Ander Erasun, Jon Irazu, Mikel Larrañaga, Juan Jose Lopez, Ugaitz Murgertza, Floren Nazabal, Joxe Mari Olasagasti, Joseba Otaegi, Unai Otaño eta Jon Rekondo. 54 ontzako 2 enbor, 60 ontzako 2 enbor eta 72 ontzako 2 enbor erdibitu beharko dituzte. Sei aizkolari onenek urriaren 12an Basaurin jokatu den finalerako txartela lortuko dute. Ea Nazabal bertan den.

Txirrindularitza - BTT

Sakanaz gozatu bizikletan!

Igandean XXII. Sakanako Bizikleta Eguna Ziordia eta Irurtzun batuko ditu (41,3 km)

Bizikletak puntuan jartzeko ordua da, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak iganderako XXII. Sakanako Bizikleta Eguna antolatu baitu. Horretarako Burunda, Barranka eta Aralar txirrindularitza klubengatik eta hainbat entitateen babesa Irurtzun eta Ziordiko Udalak eta Nafarroako Gobernua izan du Mank-ek. "Sakanako bizikletaz ezagutzen" leloa izango du. Eguraldi bikaina iragarri dute eta jendetza espero da.

"Eskualdean txirrindularitza bulkatzea, proba ez lehiakor honetan goiz polita pasatzea, Sakanako gure herriak, kaleak, zubiak, ermitak, basoak... bizikletaz ezagutzea, eta bide batez, Sakanako herri ezberdinetako eta adin ezberdinetako jendearen arteko harremanak bulkatzea" dira helburuak.

Ziorditik Irurtzuna (41,3 km)

Ziorditik abiatuko da martxa, goizeko 9:00etan. Pistetatik ibiliko dira gehienbat, eta Lakuntzan geratuko dira atsedean hartzera. Bokata norberak eraman behar-



Txikiak, gazteak, helduak, jai berriak... denondako tokia dago Bizikleta Egunean.

ko du eta antolakuntzak freskagarria eskainiko du. Ondoren Irurtzuna abiatuko dira. Hiriberritik Satrustegirantz joko dute, Zuhatsu pasa eta Ekain sartu gabe Etxarrenera heltzeko. Etxarrendik sartuko dira Irurtzuna, 41,3 km osatuta.

Parte hartzea doan da, baina

antolakuntzak autobus zerbitzua jartzen du txirrindulariak euren herrietan jaso eta Ziordia eramateko goizeko 8:00etan aterako da Irurtzundik, eta proba bukatuta, txirrindulariak etxera eramateko. Bizikletak emateko kamioia ere egoten da. Zerbitzu hauek erabiltzeko aurretik izena eman behar zen.

Besayako Bide Berdera Mank-ekin

Urriaren 21era arte eman daitezke izena: Urriaren 25ean Suancesetik abiatuta Besayako Bide Berdea osatzeko gonbita egin die Mank-ek eta Barranka Txirrindulari Taldeak BTT zaleei. Zailtasun ertain-errazeko 42,5 km-ko ibilbidea da. Autobusa 6:30ean aterako da Altsasuko autobus geltokitik. Izena emate urriaren 21 baino lehen egin behar da, 686 457 048 telefonora edo Mank-eko Kirol Zerbitzura hots eginez (948 464 866). Prezioa: 10 euro.

Bizikleta puntuan jartzera

Bizikleta puntuan jartzea aholkatu dute antolatzaileek. "Mekanikaria egoten da, baina egunean bertan gertatutako zulaketa edo matxurak konpontzeko, ez bizikletak puntuan jartzeko" nabarmendu dute. Halaber, parte hartzaile guztiek kasko eta ogitarteko eraman beharko dituzte. Antolakuntzak zehaztutako ibilbidea jarraitzeko deia egiten zaie txirrindulari guztiei, "segurtasuna bermatzeko". Sakanako bizikletaren festan parte hartzera animatu dituzte sakan-darrak, "oso egun polita" delako.



Ailetz Lasa bigarrena Arabako Itzulian

Mendiko saria Josu Etxeberriarendako

Asteburuan despeditu zen kadeteen mailako Arabako Itzulia, Dulantzin. Quesos Albenizeko Ailetz Lasa Arabako Itzuliko txapeldunordea izan zen, kadeteen lehen urteko mailan lehena. Josu Etxeberria laugarrena sailkatu zen eta mendiko sailkapena irabazi zuen.

UDAZKENEKO KRITERIUMA ASIER ETXEBERRIARENDAKO

Irailaren 12an eta 13an jubenilen mailako 16. Udazkeneko Kriteriuma jokatu zen Gipuzkoan. Lehen etapan Quesos Albenizeko Asier Etxeberria 7.a sailkatu zen. Bigarren etapako erlojupekoan Quesos Albenizeko Eneko Aramendia izan zen azkarrena, eta Asier Etxeberria 7.a sailkatu zen. Eta Ibarra jokatu tako azken etapako Asier Etxeberria lortu zuen garaipena. Sailkapen orokorra kontuan hartuta, Asier Etxeberria izan da txapelduna.



Jonathan Lastrak irabazi du 23 urtez azpiko torneo prestigiotsua eta Rural Kutxa izan da talde onena

Rural Kutxa talde sakandarreko Jonathan Lastrak Zaldibiako lasterketa irabazi zuen, helmugara bakarrik heldu eta gero. Proba irabazteaz gain, 23 urtez azpiko Lehendakari Txapelketa irabazi zuen Lastrak. Horretaz gain, Lehendakari Txapelketako talde onena izan da Sakanako taldea.

Challengea Victor Etxeberriarendako

Baina horiek ez dira talde sakandarraren berri pozgarri bakarrak. Izan ere, Rural Kutxako Victor Etxeberriak irabazi du 17. Diario

Lehendakari Txapelketa Rural Kutxarendako



Jonathan Lastra.

de Noticias Challengea, afizionatu nafar onenak saritzen dituen txapelketa, hain zuzen. Victor Etxeberriak lehia oso estua zuen Baqué-Campos taldeko Julen Amezketa-ekin, baina azkenean talde berdekoa nagusitu da Challengean, Galiziako Voltako azken etapan lortutako 14. postuagatik eta Voltako sailkapen orokorrean sailatutako 7. postuari esker. Guztira 419 puntu lortu ditu Etxeberriak Challengean, eta 404 puntu Julen Amezketa.

Arbizu
Hesteki eta pateak

www.embutidosarbizu.com
Utzubar Industrialdea, E kalea 1-2 • ARBIZU tel. 948 46 06 28 fax. 948 46 10 16

Atletismoa



Angelina Lizarraga unanuarra lehen ergoendarra izan zen.

Ergoienako Bira olaztiarrendako

Raul Audikana eta Izaskun Beunza izan ziren garaileak Unanun

Unanuk hartu zuen, larunbatean, Ergoienako Udalak hainbat babesle eta laguntzaileekin antolatutako 11. Ergoienako Bira. Eguraldia lagun, giro ederra egon zen Unanun. Lehenik eta behin kategoria txikiko lasterketak jokatu ziren Unanuko karraketan barna. 51 neska-mutiko lehiatu ziren kategoria ezberdinetarako prestatutako lasterketetan eta ondoren proban nagusiaren txanda izan zen. Lasterketa Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sarirako puntuagarriaren.

Unanun hasi eta bukatu zen 8,5 km-koprobea, ibilbide gorabeheratsua duena. Lehenik eta behin Unanutik Dorraora joan ziren korrikalariak, eta atzera ere Unanutik pasatu ziren, segidan Lizarragaraino heltzeko. Ondoren, Dorrao gainditu eta gero, Unanun

ko helmugara iritsi ziren proban parte hartu zuten 44 korrikalariak. Horietatik 23 sakandarrak ziren. Raul Audikana izan zen txapelduna (33:54). Olaztiarrendako ia minutu bateko alde atera zion Eduardo Lopezi (34:50). Sergio Garcia de Eulate altsasuarrak osatu zuen podiuma (35:16). Lehen beteteranoa Francisco Gomez izan zen (36:00).

Emakumezkoetan Izaskun Beunza olaztiarra izan zen, azken urtean bezala, nagusia (39:44). Angelina Lizarraga unanuarra bigarrena heldu zen helmugara (43:34). Lizarraga ere probako lehen beteterano ergoendarra izan zen. Hirugarrena Maite Zabaleta etxarriarra izan zen (45:20).

Proba bukatuta bildutako guztiendako auzate bikaina prestatu zuten Unanuko elkarteak.

Sailkapen osoa eta argazki galeria: www.guaixe.eus.

Tiro olinpikoa

Nafarroako txapelduna

Nafarroako Foso Unibertsaleko txapeldun absolutua izan da Kali

Irailaren 13an Nafarroako Foso Unibertsaleko Txapelketa jokatu zen San Adrianen. Kategoria guztiak kontuan hartuta, 32 tiratzaile inguruk hartu zuten parte. Tartearen zegoen Jose Carlos Jimenez "Kali". Altsasuarra hirugarren mailan aritzen da.

Hasierako fasean 25 plateretako bi tiraldi egin behar zituzten. Kategoria guztiak kontuan hartuta 6 emaitza onenak egin zituzten tiratzaileak play-offetarako sailkatu ziren. Kalik 23 plater apurtu zituen lehen tiraldian eta 24 bigarrenetan, eta Nafarroako Foso Unibertsaleko txapelduna erabakitzeke play-offetara sailkatu zen. Lehen mailako tiratzaile bat, bigarren mailako bi, hirugarren mailako bi eta lau garren mailako bat lehiatu ziren. Play-offetan 25 plateretako tiraldiari egin behar zioten aurre, eta Kali izan zen onena, 23 plater hautsita. Fase guztiak kontuan hartuta, 75 plateretatik 70 apurtu zituen altsasuarrak. Bigarrena Rafael Lekunberri izan zen, 69 platerekin, eta hirugarrena Luis Cerdan, 65 platerekin. Hortaz, Kali Nafarroako txapelduna da, maila absolutuan, eta jakina, baita bere mailan ere, hirugarren mailan.

Balorazio bikaina

"Oso kontentua nago. Nire mailan, hirugarren mailan, emaitza ona lortzeko esperantza nuen, baina ez nuen inola ere txapelketa irabaztea espero" dio tiratzaile altsa-



Kali, Nafarroako trofeoarekin.

suarrek. Igandean Nafarroako Foso Unibertsaleko Kopa hartu zuen Ribaforadak eta kasu honetan Kali laugarren postuan sailkatu zen bere kategorian, hirugarren mailan. "Lehenengo tiraldian ez nintzen oso fin ibili. Baina kontentua nago. Gauzakez dira beti ongi ateratzen" gaineratu du Kalik.

Nafarroako Foso Unibertsaleko Txapelketa eta Kopak Espainiako Foso Unibertsaleko Txapelketarako puntuagarriak ziren. Txapelketa hori 2016ko udan jokatu da. "Aurtengo denboraldia despeditzen ari da, hurrengo urtera arte. Espainiako Txapelketa jokatzeko 300 plater puntuagarri geratzen dira oraindik. Hortaz, asko dago egiteko oraindik" azaldu digu Kalik. Altsasuarra aurtun Euskadiko Foso Unibertsaleko txapeldunordea izan zen hirugarren mailan, eta denboraldiaren balorazio "oso ona" egin du.

Botxa

Santos eta Julen Iragi binakako txapeldunak



Finalista guztiak, sari ematean.

Irurtzungo Binakako Botxa Txapelketa irabazi zuten asteburuan

Asteburuan jokatu da, Irurtzungo Iratxo elkarteke botxategian, Irurtzungo Binakako Botxa Txapelketako azken txanpa. Ostiralean final laurdenak jokatu ziren, larunbatean final aurrekoak eta igandean finalak. Botxa petanka antzeko joko tradizionala da, Irurtzunen zale ugari dituena. Final handian Santos Iragik eta Julen Iragik 15 eta 7 irabazi zieten Migel Ollori eta Txutxurrini, lehia estuan.

Orain banakakoa

Binakakoa jokatu eta gero, hurrengo asteburuan hasiko da Banakako Txapelketa.

Emaitzak

Final aurrekoak:
Pakita-Alicia 4 / Santos-Julen 15
Juanito-Luis 5 / Migel-Txutxurrin 12

Finalak:

3. eta 4. postuak:
Pakita Arruabarrena-Alicia Navarro 15 / Juanito Maestre-Luis Arrasate 2
Final handia: Santos Iragi-Julen Iragi 15 / Migel Ollori-Txutxurrin 7

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

2. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA 2 - MUTILBERA 1

ETXARRI ARANATZ 4 - GARES 4

Lakuntzan jokatuak partidan, 17. minutuan Burilok Lagun Artea aurreratu zuen, penaltyz, baina Mutilberak berdindu egin zuen. Bigarren zatian Davilak, falta jaurtiketa bikainarekin, garaipenaren gola sartu zuen.

Etxarri Aranatz Gares 0 eta 4 aurreratu zen. Penalty bati esker Xabatek Etxarriren aldeko lehen gola sartu zuen. Eta gero, beste hiru gol sartu zituen Xabatek, Etxarrirendako garaipen zaporea duen berdinketa lortuz.

Sailkapena >>

1. Bidezarra	6 p
9. Lagun Artea	3 p
10. Etxarri Aranatz	2 p

Asteburuko jardunaldia

BETI CASEDANO - LAGUN ARTEA

(Larunbatean, 17:30ean, Kasedan)

CASTILLO DE TIEBAS - ETXARRI

(Larunbatean, 16:30ean, Tiebasen)

ERREGIONAL MAILA. 3. multzoa

2. JARDUNALDIA

ITAROA HUARTE 1 - ALTSASU 0

Itaroak eta Huartek jokatuak partida oso lehiatua izan zen. Itaroa aurreratu zen, eta nahiz eta Altsasuk ederki estutu, ongi defendatu zuten Uharteko Iruñakoek.

Sailkapena >>

1. Universidad de Navarra	6 p
12. Altsasu	1 p

Asteburuko jardunaldia

ALTSASU - PAMPLONA (Larunbatean, 11:00etan, Dantzalekun)

Areto futbola

ARETO FUTBOLEKO LEHEN MAILA

2. JARDUNALDIA

SANTIAGO FUTSAL 4 - MAGNA GURPEA 4

Irurtzungo taldea atsedendira 1 eta 3-ko aldearekin iritsi zen, Jesulitok, Rafa Usinek eta Carlitosek sartutako golei esker, baina bigarren zatian egindako akatsengatik hiruna berdindu zuen Santiagok. Eseverrik laugarrena sartu zuen, baina Santiagok berdintzea lortu zuen.

Sailkapena >>

1. Bartzelona	6 p
10. Magna Gurpea	1 p

Asteburuko jardunaldia

MAGNA GURPEA - BURELA PESCADOS RUBEN (Gaur, ostiralean, Anaitasunan, 20:30ean)

Futbola



Osasunakoak trofeoarekin.

Osasuna, Etxarriko haurren torneoko garaile

Erreala eta Alavesen kontrako bi partidak irabazi zituen

Etxarri Aranatz futbol taldeak haurren mailako futbol torneoa antolatu zuen larunbatean San Donato futbol zelaietan. Osasuna, Alaves eta Erreala taldeak lehiatu ziren. Azkenean Osasuna izan zen garailea, Alavesen kontra 1 eta 0 eta Errealaren kontra 1 eta 0 irabazi eta gero. Alavesek jokatuak bi partidatan 1 eta 0 galdutako. Torneoan Erreala, Alaves eta Osasuna taldeen kamisetak zozketatu ziren.



Emakume, animatu korrika egitera!

Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskolan izena ematea zabalik dago. Bi maila eskainiko dira: hastapena eta hobekuntza

Aurreko urteetan izandako arrakasta ikusita, laugarrenez Sakanako emakumeendako atletismo eskola antolatu du Mank-eko Kirol Zerbitzuak, Altsasuko Dantzalekuko atletismo pistan. Horretarako Altsasuko Udaleko Emakumearen Bilgunea, Altsasuko Udalen Kirol Zerbitzua, Inigo Aritzeta ikastola eta Dantzaleku Sakana Atletismo taldearen laguntza izan du Mank-ek.

Aurten berrikuntzak daude. Izan ere, bi maila eskainiko dira: hasi berrien maila eta hobekuntzakoa. Ostiralean gauzatuko da Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskola, Dantzalekun. 17:15etik 18:00etara hasi berriak ariko dira, eta 18:00etatik 19:15era hobekuntza mailakoak. Orain arte Mikel Lakuntza zen irakaslea, baina hemendik aurrera Lakuntzak Aitor Mozoren laguntza izanen du. Klaseak urriaren 16an hasiko



Emakumeendako Atletismo Eskola.

dira, maiatzaren 13ra arte. Emakumeendako atletismo eskolan korrika egiteko teknika eskainiko da. Horretaz aparte, eskolarekin emakumeen artean harremana sustatu nahi da, lasterketetara eta beste elkarrekin joateko.

Urriaren 2ra arte

18 urtetik gorako emakumeek eman ahal dute izena, urriaren 2ra arte, Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866 edo kirolak@sakanamank.com). Prezioa: 50 euro.

Kiroldedia

Fibromialgia eta neke kronikoarendako jarduera

Altsasun eta Irurtzunen izanen da, urritik ekainera, eta izena ematea zabalik dago

Minusbaliotasun fisiko eta organikoak duten pertsonei euren osasuna hobetzeko jarduera fisiko espezifikoa eskainiko die Mank-eko Kirol Zerbitzuak, AFINA (Nafarroako Fibromialgia Elkarte) elkartearekin eta Altsasu eta Irurtzuno udalekin batera. Helburua fibromialgia, neke kronikoaren sindromea eta sentiberatasun kimiko anizkoitza duten pertsonei osasuna hobetzeko jarduera fisiko espezifikoa eskaintzea da. Aipatu ikastaroa Altsasun (Labadeon) eta Irurtzunen (Kultur Etxean) eskainiko da, urriaren 1etik ekainera, asteartean eta ostegunetan. Altsasun 16:00etatik 17:30era eta Irurtzunen 10:40etik 12:10era.

Irailaren 28ra arte

Izena ematea zabalik dago irailaren 28ra arte Mank-eko Kirol Zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.com). AFINAko bazkideek 11 euro ordaindu beharko dituzte hilean eta bazkide ez direnak 14 euro.

Kiroldedia

Igeriketa, soinketa, musikoterapia eta psikomotrizitatea ez gaituendako

Askalatsen laguntzarekin, pertsona ez gaituendako igeriketa eta soinketa ikastaroa eskainiko du Mank-ek. Ikastaroa urriaren 5etik maiatzaren 5era bitartean izanen da, astelehenean eta ostegunetan, 17:00etatik 18:00etara, dohainik. Bestetik, Sakanako Ez Gaituen Elkartearen laguntzarekin, ez gaituendako musikoterapia eta psikomotrizitatea ikastaroa antolatu du Mank-ek. Azkenik, musikoterapia eta psikomotrizitatea ikastaroa Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean eskainiko da. Ordu bateko saioa izanen da, larunbat goizetan, hilabete bitan. Izena emateko Mank-eko Kirol Zerbitzura jo behar da (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com).

Pilota

Bakaikoa eta Mariezkurrena txapelkunak Lodosan

Virgen de las Angustias Torneoko promesen mailako txapelkunak dira sakandarrak

Asteburuan Virgen de las Angustias Pilota Torneoko finalak jokatu ziren Lodosan. Promesen mailan Erreka klubean dabilen Joanes Bakaikoa etxarriarrak eta Irurtzuno klubeko Mariezkurrenak jantzi zuten txapela, Iurretako Olaburu taldeko Aitor Elordiri eta Lemoako Oier Etxebarriari 22 eta 7 irabazi eta gero.

Mendi lasterketak

Berriainen ondoren Olatzagutia-Urbasa

Bihar jokatu da, 10:00etan, IX. Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa. 120 korrikalari daude izena emanda

www.olatzagutia-urbasa.net

Probaren inguruko informazio guztia, izen emateak, mapak eta beste.

Olatziko San Migel festekin batera, bihar, larunbatean, IX. Olatzagutia-Urbasa mendi lasterketa jokatu da. Proba Olatziko Sutege kirol elkartek antolatu du, Olatziko Udalaren eta Nafarroako eta Euskal Herriko Mendi Federazioen laguntzarekin.

Ibilbide nagusia (23,2 km) eta kadeteena (15,6 km)

Urbasa-Andiako paraje zoragarrietatik barna ibiliko dira korrikalariak. Olatziko mendi lasterketa 23,2 kilometro ditu eta desnibel positiboa 1.367 metrokoa da. Korrikalariak goizeko 10:00etan emanen diote hasiera probari, Clinker paretik (528 m). Zuzenean Urbasako ipar gailurrerriko punturik altuenera joko dute, Tonorraundira (1.157 m). Mendi gainean, bira gorabeheratsua egingen

dute, ekialdera Altsasuko portugainetik (1.150 m), Morterutxora jaitsi (890m) eta segidan Zelai handitik (1.113 m) Bargagainera heltzeko (1.153m). Ondoren Gainsoilera (1.068m) eta Ordotezko putzuraino. Handik jaisten hasiko dira, Urbasako portugainera, eta gainbehera zorrotzetik Olatziraino iritsiko dira. Ibilbidean 4 denbora kontrol puntu izanen dira, edaria eta janaria hartzeko guneak eta osasun laguntza ere izanen dituzte puntu estrategikoetan.

Horretaz gain, antolakuntzak kadeteendako 15,6 km-ko ibilbidea antolatu du.

Partaide gutxiago

Momentuz 120 korrikalari daude izena emanda probarako, aurreko urtean baino dezente gutxiago.



Korrikalariak Urbasako paraje zoragarrietatik barna ibiliko dira.

Izan ere, aurten proba ez da mendi kopen lasterketarako puntuagarria, eta hori asko nabaritu da. Aurreko urtean, aldiz, proba Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako eta Euskal Koparako baliagarria zen eta 312 korrikalari parte hartu zuten, tartean 50 sakandarrek. Aritz Egea (1:48:46) eta Sandra Sevillano (2:17:22) gailendu ziren. Sakandarren artean Jose Luis Beraza izan zen azkarrena, helmugan zazpigarrena iritsi eta gero (1:59:31).

Sariak

Maila absolutuan, neska eta mutil onenek, hurrenez hurren, 350 euro, 175 euro, 125 euro eta 75 euro jasoko dituzte. Horretaz gain, irabazleek txapela jantziko dute eta lehen hirurek trofeoa jasoko dute. Lehen beterranoek 75 euroko saria izanen dute. Promesa, junior eta kadete onenek garaikurra jasoko dute. Bestalde, proba bukatzen duten parte-hartzaile guztiek opari poltsa jasoko dute. Gainera, korrikalari guztien artean Urbasako 10 gazta banatuko dira.



Sakandarrak VII. Uharte-Arakil-Berriain Km Bertikalean:

1.	Aitor Osa	39:54
7.	Jose Luis Beraza (Uhar)	45:35
9.	Mikel Rubio (Irur)	45:50
12.	Aritz Munarriz (Etx)	46:02
22.	Beñat Katarain (Lak)	47:58
32.	Gorka Santesteban (Arakil)	49:17
36.	Alatz Agirre (Arb)	50:00
38.	Iñigo Martinez (Uhart)	50:08
44.	Mikel Satrustegi (Arru)	50:34
48.	Mikel Berastegi (Arb)	51:08
63.	Joxeja Maiza (Etx)	52:33
76.	Alberto Razkin (Etx)	54:10
81.	Asier Reparaz (Arb)	54:41
82.	Arkaitz Munarriz (Etx)	54:42
99.	J. Javier Beregaña (Uhar)	56:35
100.	Joseba Satrustegi (Arru)	56:36
101.	Juan Larrea (Alts)	56:37
104.	Jorge Holgado (Alts)	56:45
108.	Iñaki Alvaro (Alts)	57:01
112.	Noureddine Baba (Lak)	57:09
119.	Juanjo Armendariz (Irañ)	57:44
134.	Migel Lopez (Uhar)	59:09
137.	Jokin Vilariño (Uhar)	59:29
149.	Juan Martinez (Uhar)	1:01:59
167.	Erkuden San Martin (Etx)	1:04:19
178.	Jorge Martinez (Alts)	1:06:24
190.	Maria Jesus Martin (Uhar)	1:24:15

Osak errekorra hobetu zuen (39:54)

Eguraldia lagun, Beriaingomaldak zalez beteta zeuden 7. Uharte Arakil-Berriain Km Bertikalak jarraitzeko. Aralar Mendi Taldeak antolatutako proba Kilometro Bertikalen Euskal Koparako baliagarria zen eta, horretaz gain, Nafarroako Kilometro Bertikalen Txapelketa eraiki zuen. 207 korrikalari zeuden izena emanda eta 197k hartu zuten irteera erlojuaren kontrako proban.

Aitor Osa izan zen jauna eta jabe. 2014an berak ezarritako errekorra 27 segundotan hobetu zuen (39:54). Joseba Larralde (42:28) eta Iñigo Larizek (42:47) osatu zuten podiuma. Emakumezkoetan Laura Sola nagusitu zen (51:49). Ez zuen lortu errekorra gaintzea (49:47, Agirrezabal). Montserrat Vazquez (52:20) eta Virginia Perez (52:52) izan ziren hurrenak.

Osa eta Sola atzera ere nagusi Km Bertikalean



San Martin eta Beraza, lehen sakandarrak. Behean, Sakana Bizirik, talde onena.



Beraza sariz lepo eta Sakana Bizirik Nafarroako onena

Beterano onena Jose Luis Beraza izan zen (45:35). 7.a sailkatu zen, eta guztira sei aldiz igo zen podiumera. Lehen beterranoa, lehen sakandarra eta lehen uhartearra izan zen. Horretaz gain, Nafarroako Kilome-

tro Bertikalen Txapelketan txapel-dunordea izan zen Beraza - Mikel Rubio irurtzundarra hirugarrena - eta Nafarroako lehen beterranoa izan zen. Taldeka, Sakana Bizirik izan zen Nafarroako Kilometro Bertikaleko talde onena, Txurregi bigarrena eta Uharte Arakilgo

Aralar Mendi, Berazaren taldea hain zuzen, hirugarrena. Oso pozik zeuden Sakana Bizirik taldekoak.

Emakume sakandar onena Erkuden San Martin izan zen (1:04:19). 167.a sailkatu zen etxarriarra, emakumezkoen sailkapenean 13.a. Horretaz gain, Nafarroako Km Bertikalen Txapelketako beterrano onena izan zen. Pozik zegoen. "Oso gogorra egin zait, azkenean puska bereziki. Aurreko urteko denbora hobetu dut eta ni horrekin pozik geratzen naiz. Jendearen gertutasuna izugarria izan da. Oilo pikorra jarri zait" zioen. Jose Luis Beraza ere pozik zegoen. "Ezin dut sinetsi ere zeinen ongi atera zaidan etxeko proba. Nire denborarik onena ia minutu batean hobetu dut. Jendearen animuak eta berotasuna eskertu nahi ditut" adierazi zuen uhartearrak.

26 sakandar

Sekulako maila egon zen. 37 korrikalari 50 minutuaren azpitik osatu zuten igoera. 26 sakandar aritu ziren guztira. Gizezkoetan Jose Luis Beraza (45:35, 7.a), Mikel Rubio irurtzundarra (45:50, 9.a) eta Aritz Munarriz (46:02, 12.a) izan ziren azkarrenak. Eta, emakumezkoetan, Erkuden San Martin (1:04:19) eta Maria Jesus Martin (1:21:15).

Felipe Gorriti ren meza Uhartan

Igandean, 12:00etako mezan, Uhartan Arakilgo elizan Tolosako Santa Maria musika kapera ariko da

Herriko musikari handia-
ren, Felipe Gorriti Osan-
belaren meza entzuteko
aukera izanen dute uhartearrek
eta bisitariak igandean. Eguerdiko
mezan izanen da. Doinuak Tolosako
Santa Mariako abesbatzak eta
musika kaperak interpretatuko
dituzte. Gorritiren musika maite
dutenak harekin gozatzera gon-
bidatuak daude.

Gorriti Uhartan Arakilen jaio
zen, 1839. urtean. Lehen musika

ikasketen ondoren Tafallako eli-
zako musika-arduradun izenda-
tu zuten eta ondoren Tolosako
Santa Maria elizakoa. 1896. urte-
an hil zen arte Tolosan arrasto
handia utzi zuen Gorritik. Gaur
egun nabaria da hura eta, horre-
gatik, musika eta kultura susta-
tzeko sortu zuten fundazioari
Arakil eman diote izena; Gorriti
zenaren sorterrria gogoan, bai-
na baita haren obra, eta beste
batzuen, gorde eta zabaldu nahi
dutelako.

San Migel festen egitarauaren
barruan dago Gorritiren meza.
Hura antolatu ahal izateko Ara-



kil Fundazioa, Tolosako Santa
Maria kapera, Uhartan Arakilgo

Udala eta herriko San Joan Parro-
kia elkartu dira.



Irakurle taldea lanean

Etcharri Aranazko irakurle tal-
deak Irene Nemirovsky idazle
ukrainararen *Arimen maisua*
(Alberdania, 2009) liburua auke-
ratu du ikasturtea hasteko. Nork
bere etxean liburua irakurri ondo-
ren, lastailaren 29an, ostegunean,
19:00etan, udal liburutegian libu-
ruaz hitz egitera elkartuko dira.

Arraiza inklusioa ardatz duen antzezlanean

Jendarte Bidaide antzezlan-
a mustu zuten Usurbilen osti-
ralean. Herriak Gipuzkoako
ikastolen aldeko festa hartuko du
eta egitasmoa Guztioak Gattunk
batzordeak proposatu zuen proiektu-
a. Hura zuzentzeaz Alex Tello
arduratu da. Obraren muina mende-
kotasuna da. Gorpildun aulkiduna,
Down sindromeduna, gorra, itsua...
seinalatuz aparte, modu batera edo
bestera, denok mende-koak garena
adierazi nahi da obraren bidez.
Azken batean gaitasun ezberdineko
pertsonek osatzen dugula gizartea
azaldu nahi izan dute obrarekin.
Keinu bidezko itzulpena ere izan
zuen emanaldiak.

Dantza, musika eta umorea



ditu obrak. Anabel Arraizak zuzene-
an kantatzen du. Harekin batera,
aritu dira Ana Elordi, Bouchra
Bagdadi, Enrike Amilibia, Eugeni
Alzibar, Satxa Soriazu, Telmo

Irureta, Xanti Agirrezabala. Ez
dute pertsonaiarik jokutzen. Per-
sonak dira, gizarte zabalaren isla.
Obra beste eszenatoki batzuetan
emateko prest daude.

Aciluz musikologia jardunaldian

Nafarroako Goi Mailako Kon-
tserbatorioko ikasle talde
batek bultzatuta sortu berri da
Amun, Nafarroako Musikologia
Elkartea, kontserbatorioan bertan
egoitza duena. Musikologiaren
inguruko jarduerak sustatzea du
helburu elkarte sortu berriak. I.
Musikologia Jardunaldiak anto-
latu ditu heldu den asteazkenetik
ostiralera. Ostegunean, 18:00etan,
*Agustin Gonzalez Acilu: estética y
pensamiento* hitzaldia iragarri
dute. Konposatzaile altsasuarrak
Jokin Zabalza eta Jaime Berrade
ariko dira hizketan. Gainera, Aci-
luri buruzko dokumentala ere
emanen dute.

Liburuaz

Niza, 1920. Mediku gazte ospetsu
batek, Dariok, onartu egiten du
New York-eko emakume abentu-
razale gazte eta pertxenta bati
sasian abortaraztea, bere emazte
Klara eta bien haurra gainbehe-
ratik salbatzearen. Horri esker
egin ahal izango du aurrera odol
greziar eta italiarreko gazte alde-
rrai horrek, hiriko bezero aber-
askumeen ezaxolakeriaren aurka.
Nizan gisa horretan zenbait
urte eman ondoren, egundoko
ideia izango du Dariok bat-bate-
an, patua bideratzen lagunduko
diona: psikoanaliaren teoria sor-
tu berria halako sen makiabeliko
batez baliaturik, halako berritsu
bat bilakatuko da, "arimen mai-
su" bitxi bat, gizartean gora egin-
go duena, modu arriskutsu batez,
horditurik bezala...

bazterretik

Iosu Lizarraga

Aplikazioen munduan nabigatzen

Nova Launcher

Munduko launcher erabilgarriena.
Alde batetik, mugikor zaharrei
beste bizi berri bat ematea lortzen
du, bere azkartasunarekin. Bestalde,
Android Lollipop puruaren itxura
lortu eta eskritorioko edizio osoa
libre uzten du (ikonoak, animazioak,
pantailak...) (Doan/5,35€)

Perpetuall

Alde batetik zure kontaktuensegu-
ritate kopia egin dezakezu. Bes-
talde, eta garrantzitsuena, zure
kontakturen batek telefono zen-
bakiz edota emailez aldatzen badu,
zure kontaktu zerrendan automa-
tikoki aldatuko da. (Doan)

AirDroid

Zure mugikorra ordenagailura
kablerik gabe konektatzeko era-
biltzen den aplikazioa. Edozein
motatako artxiboak mugikorrera
edo mugikorretik pasa, zure mugi-
korra ordenagailutik kontrolatu,
notifikazioak ordenagailuan iku-
si... (Doan)

Pushbullet

Ordenagailuarekin denbora asko
pasatzen dugunentzat eginiko
aplikazioa. Mugikorrean aplika-
zioa eta ordenagailuko internet
nabigatzailean luzapena instala-
tu eta zure mugikorreko notifi-
kazio guztiak ordenagailuko izki-
na batean agertuko zaizkizu, orde-
nagailutik erantzuteko
aukerarekin. (Doan)

Swiftkey

Idatziko dugun hurrengo hitzen

predikzioa, autozuzenketa inte-
ligentea eta swift egiteko auke-
ra duen teklatu azkarrenetarikoa.
(Doan)

Telegram

Mezuak bidaltzeko aplikazioa,
azkarra, oso segurua eta guztiz
doan. 200 kontaktuko taldeak eta
edozein motatako artxiboak pasa
ahal dituzu. Gainera web bertsio
ikaragarri ona du, ordenagailu-
arekin lan egiten dugunentzako,
guztiz aproposa. (Doan)

SnapLock

Pantaila blokeatzaile ikusgarria.
Ordua, notifikazioak, eguraldia,
ekitaldiak, gogoko ditugun apli-
kazioak... dena blokeo pantailan
izango duzu. Gainera atzealdeko
irudia eguneroko automatikoki alda-
tu dezakezu. (Doan)

Timely

Ikaragarriko itxura duen erloju-
esnaigailua. Esnaigailurako melodia
asko, "Smart Rise" (alarma jo bai-
no 30 minutu lehenago, musikalasai
batekin lo fase apal batera bidal-
tzen zaitu, gero hobeki esnatze-
ko). Gainera dispositibo ezberdi-
netan alarmak sinkronizatuz izan
ahal dituzu. (Doan)

Bandsintown

Gogoko dituzun taldeen kontzer-
tuen zerrenda. Zauden hiri edota
herriaren arabera, sarrerak erosi,
lagunekin zeinen kontzertutara
zoazen konpartitu, talde berriak
ezagutu... Musikazalea bazara, apli-
kazio onekin ez duzu denbora
gehiagorik galduko. (Doan)

Monuments Valley

2014an sortutako jokorik bere-

zientakoa. Ez dago ez lehiake-
tarik ez irabazlerik. Burua janz-
teko jokoa da, ilusio optiko eta
geometriarekin jokaten duena.
Diseinu ikaragarri batekin egina.
(2,99€)

Splive Player

Telebista mugikorretik ikusteko
aplikazio osoa. Berriki Play
Store-tik ezabatu zuten, Google-
ek jartzen duen norma legalak
betetzen ez dituelako, Splive Pla-
ye web orritik jaitzi eta hor azal-
tzen dituen argibideekin instala-
tu. (Doan)

Wattpad

Muga gabeko liburutegi mundia-
la, milioika liburu eta istorio dohai-
nik. Liburuak irakurri edota idatzi
dezakezu, erabiltzaileekin hitz egin,
iruzkinak utzi... (Doan)

Sustraien dantzan

Larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean Dantzarima dantza taldearen lehen muntaiaren emanaldia

Sustraiak ikuskizunarekin aurkeztu zuen jendaurrean bere burua Dantzarima dantza taldeak. Garagarriaren gan izan zen, Iortia kultur gunean. Orduan emanaldi arrakastatsua eskaini zuten eta jendea ezin sartu gelditu zen. Horregatik, bihar, atzera ere, taldeko 13 dantzariak eszenatoki berean ikuskizunaren emanaldi berria eskainiko dute.

Euskal dantza, erritmikoko zinta batzuk, baletoko hainbat gau-



za, flamenkoko besoak, garaiki-dea... Dantza mota ugariren

nahasketarekin osatu du taldeak ikuskizuna. Argiztapena lagun,

Taldeakideak

Beatriz Morales Perez, Leire Bujanda Moro, Loreto Agirre Jara, Maider Lazkoz Merchan, Amaia Karasatorre Claver, Asier Urizar Ramos, Jenny Domingo Oraa, Yolanda Otxoa-Aizpurua, Naiara Pérez Iñurritegi, Miriam Gonzalez Palop, Nerea Arguelles Iriarte, Igone Augusto Fernandez, Paula Urabaien Otxoa-Aizpurua eta Irantzu Gonzalez Azpiroz.

Lertxundiren, Junkeraren, zuzeneko perkusioaren eta pieza instrumentalaren doinura ariko dira dantzariak eszenatokian. Ura, sua, lurra eta haizea eta mitologiako pertsonaiek sustraietara hurbiltzeko deia egingen dute.



Nonerabili

BILTOKI TABERNA

ALTSASU

Eguneko menuan, kafea doakoa. Karta menuan, kopa doakoa.

IÑAKI OINETAKOAK

ETXARRI ARANATZ

50€ko gastuarekin, %10eko deskontu-balea.

GERTU SAKANA

ALTSASU

Sukalderako tresnerian 50€ko erosketa egitean %10eko deskontu balea hurrengo erosketarako.

AINHOA ESTETIKA

IRURTZUN

Utsusuky packetan, %30eko deskontua.

ASENSIO

ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10 €ko balea. (eskaintza ez metagarria).

IL PADRINO

ALTSASU

Eguneko menuan txupittoa doan.

VALCARCE

OLAZTI

0'06 €ko deskontua litroko, erregai guzietan.

EDERNE ILEPAINDEGIA

LAKUNTZA

30 €ko gastuarekin bibotea depilatzea doan. Ileapaindegiko zerbitzuekin, maki-laje ukitua doan.

GUAIXE KOMUNIKAZIOA

%5eko deskontua argitalpen eta diseinu zerbitzuetan.

XAGU

ALTSASU

%5eko deskontua, 30 €tik gorako erosketa eginez gero.

www.guaixe.eus-en zerrenda osoa ikusgai

Kalakan-en emanaldi bikoitza Arbizun



Larunbatean, 17:00etan eta 20:00etan Arbizuko ekokanpinoko Amari yogan izanen da emanaldia

Kalakan taldeak bi kontzertu akustiko eta intimista eskainiko ditu bihar Arbizun. Thierry Biscaray Tirrittek, Jamixel Bereauk eta Xan Errota-beherek emanaldian *Elementuak* diskoko doinuak aletuko dituzte. 14 pieza dira eta haien artean ins-

trumentalak, ahots hutsekoak, euskal kantuen moldaketak eta haien sorkuntzak tartekatzen dira.

Emanaldirako sarreraren erreserbak egin nahi dutenek 630 777 130 telefonora (Omkar) edo nebani9@yahoo.es e-postara idatzi beharko dute. Aldez aurretik 15 euro eta lehiatiltan 20. Emanaldien artean, kontzertu bikoitzera joaten direnek den pintxo-poteaz gozatzeko aukera izanen dute.

Donostiatik, Charlie & The Colours

Gaur, 22:30ean, Altsasuko Haritza tabernan

Laukote baten kontzertuarekin berrekinen dio bere programazioari Haritza tabernan, Charlie & The Colours. Donostian bizi den Charlie Atkey britainiarrak (gitarra) sortu zuen taldea duela hiru urte. Bere konposizioei kolorea emateko ezagutu zituen hiru musikari aukeratu zituen: Oriol Flores (bateria), Iker Lauroba (kontrabaxua) eta Iñigo Asensio (eskusoinua eta pianoa).

Laukoteak garagarriaren 5ean aurkeztu zuen bere aurreneko estudioko lana: *The Bossa Tree*.



Folk-pop doinuez bustitako diskoa ontzeko Xabi Zeberio (sokazko konponketak, biola, biolina eta nikkelharpa), Luis Maria Moreno "Pirata" (tronpeta) eta Amaia Azpiazu (ahotsak) izan zituzten aldamenean.

Bidadorren omenezko pastorala

Lastailaren 10ean *Joxemiel Bidador*, Iruñeko euskaldunak pastorala emanen dute Iruñean. Zuberotar moldeko ikuskizun horrekin Bidador zena omen-du nahi dute Iruñeko euskalgintzak eta kultur taldeek. Omenduak Sakana-ekin ere lotura izan zuen. Altsasun ikasten ibili zen. Bestalde, Bie-

rrik fundazioarekin bere ikerketek azaleratutako egileen testuak argitaratu zituen Sakanako euskal idazleen antologia (I) liburuan. Pastorala ikusi nahi duenak liburuxka-sarrera Iruñeko Karrikiri euskaldunon topagunearen dandan (Xabier karrika, 4) salgai du dagoeneko.

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 8%	euria: 5%	euria: 8%	euria: 10%	euria: 8%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 15%
Min: 9 Max: 18	Min: 7 Max: 21	Min: 9 Max: 19	Min: 9 Max: 19	Min: 9 Max: 22	Min: 11 Max: 21	Min: 10 Max: 20	

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	24.5	6	10.8
Etxarri A.	24	2.6	7.5
Altsasu	24	4.5	9.5
Aralar	15.8	4.7	20.8
Urbasa	20.3	0	8

: ilargiaren aldia >>

	ilbete	ilbehera	ilberri	ilgora
	28	4	13	20

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

IRAILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri kobazulorako, Donostiako Aquariumerako eta Artium museorako sarre-
rak, Lacturale lotea, Artazako kanpinerako deskontu balea, Gaztezulo aldizkarirako har-
pidetza eta Xotaren partidua ikusteko sarre-
rak.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Donostiako Aquariumerako eta Artium museorako sarre-
rak, Lacturale lotea, Artazako kan-
pinerako deskontu balea, Gaztezulo aldizkarirako har-
pidetza eta Xotaren partidua ikuste-
ko sarre-
rak.

>> 11 galdera

Anders Frisk eta Anton Sylvester Larsen

Arbizuko kanpinean eraikuntza lanetan dabilen daniarrak

Testua: Eñaut Agirrebengoa Apaolaza



Roll up ak egiten ditugu!

Guaixe KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.eus

Diseinua, inprimatzea, aluminiozko kutxa, mastila eta garraiorako poltsarekin

1.- Kanpin honen eraikuntza prozesuan parte hartu zenuten, eta orain ere bertan lanean diharduzue. Nola izan zenuten proiektu honen berri?

Gure enpresako kide batzuek Kataluniako eta Euskal Herriko lagun batzuk zituzten. Modu horretan, kanpinekoak gurekin harremanetan jarri ziren, etxea-eta egiten lagun geniezaien. Ez genuen bitan pentsatu.

2.- Zein eraikuntza teknika erabiltzen dituzue?

Teknika tradizionalak, eskulanean oinarrituak. Egurra erabiltzen dugu material nagusi gisa. Naturarentzako onak diren materialak erabiltzen ditugu, eta horixe da kanpin honek bilatzen duena.

3.- Hortaz, proiektu hau egitea erronka bat izango zen zuentzat.

Kopenhagen, adibidez, etxeak egiterakoan arau ugari jarraitu behar dira. Zehazturik egoten da zer material erabili behar ditugun. Arbizuko egitasmoa, aitzitik, ezzen horren zurruna. Eta horrek asko motibatzen gintuen. Erronka handia zen guretzat, baina bagenekien gauzak ongi aterako zirela.

4.- Zer du berezirik Arbizuko kanpinak?

Ekologikoa da, oso ohikoa ez dena. Nolakotasun horrek berezi egiten du. Gainera, leku paregabe batean dago. Naturaren erdian zaude-la senti dezakezu. Plazer bat da hemen lan egin ahal izatea.

5.- Zer alde dago kanpin ekologiko baten eta arrunt baten artean?

Alde handiena jendearen jarreraren dago. Jendearen artean giro oso

berezia egoten da. Asko kanpinean urte osoan zehar egon ohi dira; horrela, harreman estuak sortzen dira. Denborarekin, horrelako lekuak herri txiki bilakatzen dira. Bestalde, kanpinaren itxuran ere alde handia dago. Kanpin arruntetan autokarabanak eta kanpin-dendak dira nagusi. Ekologikoetan, ordea, egurrezko etxeak.

6.- Danimarkan horrelako asko dago?

Kanpin ugari daude, baina arruntak dira ohikoena. Ekologikoak, ordea, aurkitzen oso zailak dira.

7.- Urtean zenbatetik behin etortzen zarete hona?

Oraingoa aurten etortzen garen bigarren aldia da. San Juanetan 33 pertsona ginen, baina orain biok gaude bakarrik. Gu lehen aldiz 2011n etorri ginen, eta geroztik bost edo sei aldiz izan gara hemen. Normalean, bidaia egiteko laneko oporrak probesten ditugu. Horrela, jendea txandakatuz joaten da.

8.- Dagoeneko herriko jendea ezagutuko duzue. Nolako da haiekin duzuen harremana?

Harreman oso ona dugu. Lagun oso onak egin ditugu. Etortzen zaren bakoitzean jendea oraindik zutaz oroitzen dela ikusten duzu, eta hori oso sentazio atsegina da. Orokorrean, Arbizuko jendea Danimarkako herri txikietako jendea baino askoz ere irekiagoa da.

9.- Festetan Danimarka-Arbizuko herri kirol erronka egiten duzue.

Lehenengo urteko San Juanetan jolastu genuen lehen aldiz. Oso ongi pasa genuen, baina ez genuen uste jendeak horren serio hartuko zuenik! Egun osoa tabernan eman genuen, eta egoera horretan zaila zen inori irabaztea (barreak). Aurretan, baina, gauzak serioago hartu genituen, eta azkenean galdu egin genuen arren, behintzat bitik erronda bat irabaztea lortu genuen. Arbizuko jendea sokatiran oso ona dela aitortu beharra dago!

10.- Euskara apur bat ere ikasi duzue, ezta?

Hitz solte batzuk dakizkigu, tabernan poteak eskatzeko moduan (barreak). Esaldiak osatzea, ordea, oso zaila da. Euskara oso hizkuntza polita iruditzen zaigu, baina ikasten zaila ere bada. Herrian neska talde bat ezagutu dugu, ingelesez ongimintzatzen dena, eta haiek euskaraz hitz egiten irakasten digute.

11.- Beraz, ia-ia arbizuarrak zaretela esan daiteke.

Baietz esan daiteke! Herri honekiko lotura oso estua sentitzen dugu. Itxuraz ez daukagu arbizuarrak, baina tira! Egia esan, asko zor diogu Arbizuri, honi esker murgildu baikara Euskal Herriko kulturari. Benetan txunditu gaituen kultura bat da, batez ere jendeak kontzientzia politiko handia daukalako. Horrek gizartea batu egiten du, komunitate sendo bat sortuz. Hori dela eta, jendearen arteko harremana oso berezia da. Belaunaldi guztiak oso loturik daude, eta hori asko miresten dugu.